

Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2023/13

Herritarren Partaidetzako Deialdia. Dirulaguntzak, norgehiagokako araubidean, 2023. urterako

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** [\(2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua\).](#)

A. ENTITATE DEITZALEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkaritza teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea: Irabazi-asmorik gabeko elkarteei eta beste entitate batzuei dirulaguntzak ematea, 2023an proiektuak, jarduketak eta prestakuntzak egin ditzaten herritarren partaidetzaren, herritartasun aktiboaren, partaidetzako prestakuntzaren eta gizarte-loturaren esparruetan. Ilido horretan, herritarren partaidetza irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta/edo entitateek sustatutako ekimenak dira, elkartekideen eta/edo boluntarioen inplikazio aktiboa sustatzeko, garapen pertsonala, taldekoa eta komunitarioa sustatuz, inguruko arazo ekonomikoei, ingurumenekoei eta sozialei erantzuna emanaz eta bizi-baldintzak hobetuz.
2. Deialdiaren helburua: Deialdi honek elkarlanerako laguntza-tresna izan nahi du Udalaren esparruan, elkarteek eta irabazi-asmorik gabeko entitateek proiektuak, jarduketak eta prestakuntzak egin ditzaten, ehun soziala bultzatzea helburu harturik, herritarren partaidetza, herritartasun aktiboa, partaidetzako prestakuntza eta gizarte-loturak erabilita, eta aldi berean genero-berdintasuna sustatuta.
3. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak: Deialdi hau zuzenduta dago 2023. urte osoan zehar herritarren partaidetzaren esparruan gauzatzen diren proiektuak, jarduketak eta prestakuntza diruz laguntzera. Bost modalitate ezarri dira: - A epigrafea: Auzoetako festak, jai herrikoiak zein unean uneko izaera komunitarioko gizarte eta kultur ekitaldiak: Inauteriak, Olentzero, Erregeak, Kauteroak, Auzoko eguna, Emakumeen Eguna, San Joan suak, Haurren eguna, Halloween, etab., betiere auzo batean egiten badira, herritar guztientzat irekita badaude eta auzo-elkarteek, festen koordinatzaileek eta nortasun juridikoa duten kultura-elkarteek egiten badituzte.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- B epigrafea: Herritarren parte-hartzea eta gizarte-ehunak sarean lan egitea sustatzen dituzten jarduketak.
- C epigrafea: Kultur aniztasuna bultzatzen duten jarduerak.
- D epigrafea: Herritarren parte-hartzea eta adinekoen herritartasun aktiboa sustatzen dituzten jarduketak.
- E epigrafea: Herritarren partaidetza eta herritartasun aktiboa sustatzeko esparruan egindako prestakuntza-ekintzak.

Deialdi honetara aurkeztutako ekintza guztiek honako ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- Jarduerak interes kolektiboko helburu edo proiekturen bat garatzearekin lotuta egon beharko dute.
- Ekintzek parte-hartzaileek aktiboki eta zuzenean parte hartzea sustatu behar dute eta gainerako herritarrei irekita egon behar dute. Baldintza horiek betetzen ez dituen erakundearen ohiko jarduna ez da finantzatu.
- Jarduerak edo proiektuek garapen pertsonala, taldekoa eta komunitarioa sustatuko dute, inguruko arazo ekonomikoei, ingurumenekoei eta sozialei erantzuna emanez eta bizi-baldintzak hobetuz.
- Jarduerak parte-hartzaileak ahaldundu behar dituzte, eta haien bizi-kalitatea hobetzean eta parte-hartze handiagoa lortzean eragin behar dute.
- Deialdi honen izaera, eta Partaidetzako Erregelamenduak parte hartzeko gutxieneko adina 16 urtetan ezartzen duela kontuan harturik, diruz lagundutako jarduerak helduendako edo 16 urtetik gorakoendako planteatuko dira. Horren salbuespen izanen dira A epigrafeari lotutako jarduerak, haien izaera dela-eta (Olentzero, Erregeak...), eta herritar guztiei irekita egoteagatik helduak zein adingabeak hartu ahal dituzten unean uneko jarduera horiek.

Aurkeztu diren proiektuak eskabidean (V.2. eranskina) adierazitako A, B, C, D eta E epigrafeetako bati lotu beharko zaizkio, eta 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte egin behar dira. Elkarte edo entitate bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu ahal du epigrafe bakoitzeko; alabaina, aurkeztu ahal du beste bi entitateekin –edo gehiagorekin– batera aurkeztutako beste proiektu batzuk.

Auzo-elkarateak, kultur koordinakundeak eta jai-batzordeak A epigrafean aurkeztu beharko dituzte beren proiektuak auzoetako festen kasuan, eta B epigrafean, bestelako jardura iraunkorrako egiteko (3 hilabete baino gehiagokoak).

Jasotako eskaerak berrikusteko prozeduran zehar deialdiaren unitate kudeatzaileak modu justifikatuan ikusiko balu eskaera bat hobeki doitzen zaiola aurkeztu denaz besteko beste epigrafe bati, beste epigrafe batera lekualdatzen ahal du, balorazio tekniko egiteko, entitate interesdunari aurrez jakinarazita.

A EPIGRAFEA: AUZOETAKO FESTAK, JAI HERRIKOIAK ZEIN IZAERA KOMUNITARIOKO GIZARTE ETA KULTUR EKITALDIAK:

Irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateak –auzo- eta kultura-elkarte, jai-batzorde, kultur koordinakundeak, etab.– aurkeztutako proiektuak, honako hauek gauzatzeko: auzoetako festak, jai herrikoia edo unean uneko izaera komunitarioko ekitaldi soziokulturalak (Inauteriak, Olentzero, Erregeak, Kauteroak, San Joan suak, Halloween, Auzoko eguna, Emakumeen eguna, Haurren eguna, etab.), betiere

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

kultura herrikoia eta gertukoa sustatu, sortu eta hedatzearen bidez auzoetan sareak eta gizarte-lotura sortzen badituzte eta auzo-elkarteek, jaietako koordinatzaileek edo kultura-elkarteek egiten badituzte.

B EPIGRAFEA: HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA GIZARTE-EHUNAK SAREAN LAN EGITEA SUSTATZEN DITUZTEN PROIEKTUAK:

Epigrafe honen barruan sartzen dira lurraldeko irabazi-asmorik gabeko entitateek gauzatutako jarduerak eta programak egoera berezietan dauden pertsonak eta kolektibo zaurgarriak lagundu eta zaintzeko (gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonak, errefuxiatuak, gizarte-zailtasunean dauden emakumeak, adimen-osasun arazoak dituztenak, etab.).

Halaber, herritarrei oro har zabalik dauden eta honako hauek sustatzen dituzten proiektuak barne hartzen ditu: gizarte-partaidetza, herritartasun aktiboa eta boluntario-lana; gizarte-ehunaren koordinazioa eta sare-lana; lurraldeko bizilagun, talde eta elkarten arteko informazioa eta komunikazioa. Horretarako, ekintza berritzaileak abian jarriko dituzte, eta baita gizarte-ehunetik gizarte eraldatzeko praktika onak ere.

C EPIGRAFEA: KULTUR ANIZTASUNA BULTZATZEN DUTEN JARDUKETAK:

Epigrafe honen barruan honako hauek sartzen dira:

- Herri-kultura sustatzeko, sortzeko eta hedatzeko proiektu eta jarduerak, Nafarroaren eta eskualdeko beste komunitateen kultur aniztasunaren ordezkari diren entitateek aurkeztuak, hori dena topaketa kulturala eta elkarbizitza lortzeko, aisialdiaren eta denbora librearen arloan (gizarte eta kulturakoa, gizarte eta hezkuntzakoa eta gizarte eta komunitatekoa), lurraldeko gizarte-ehunaren parte-hartzetik abiatuta eta herritar guztiei irekia.

- Partaidetza, harrera, sentsibilizazio, sustapen, sormen eta hedapen proiektu eta jarduerak, kultura- eta jatorri-aniztasuna sustatzekoak, elkarbizitza, elkarbizitza eta ezberdintasunaren errespeturako estrategia gisa, jatorri ezberdinetako pertsonen eta kolektiboen parte hartzea eta ahalduntzea bultzatzeko udalerriaren bizitzan.

D EPIGRAFEA: HERRITARREN PARTAIDETZA ETA ADINEKOEN GIZARTE-AHALDUNTZEA SUSTATZEN DITUZTEN JARDUKETAK:

Aisialdiaren eta denbora librearen arloan (gizarte eta kulturakoa, gizarte eta hezkuntzakoa eta gizarte eta komunitatekoa) adinekoen bizi-kalitatea eta ongizatea sustatzearen alde lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitate edo elkarteek aurkeztutako proiektuak eta jarduerak.

E EPIGRAFEA: PRESTAKUNTZA-EKINTZAK, PARTAIDETZA ETA GIZARTEAREN AHALDUNTZEA SUSTATZEKO:

Irabazi-asmorik gabeko elkarte edo entitateek aurkeztutako prestakuntza-proiektuak, hezkuntza ez formaleko esparrukoak, eta, helburu zein eduki nagusizat honako hauek egitera bideratuta daudenak: norbera, taldeak, erakundeak, gizarte eta komunitatea ahalduntzea; herritarren partaidetzari, elkarte, gizarte-entitate eta tokiko garapenarekin engaiatutako herritarren arteko lankidetzaren dinamikak sendotzea; hiriko hainbat gizarte-eragileri zuzendutako prozesuak garatzea partaidetzaren eta gizarte-ahalduntzearen arloan trebatzeko, eta herritar aktiboek, erakundeek eta gizarte-entitateek elkar hartuta hausnartzeko guneak sortzea.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Epigrafe honen barruan dauden arlo tematikoak:

- Animazio soziokulturala, asoziazionismoa, partaidetza eta komunitate-garapena
- Herritarren partaidetzarako gaikuntza
- Kultur aniztasuna: gaitasun kulturalak, kulturarteko bitartekaritza, dibertsitatearen arloko arreta
- Komunikazio soziala eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak elkarreendako
- Parte-hartzea artikulatzea hainbat kolektibotan: emakumeak, adinekoak, dibertsitate funtzionala dutenak, gazteak, etab.
- Gizarte-berrikuntza

Gai horien barruan dauden prestakuntzak epigrafe honen bidez finantzatuko dira.

Formatua:

Proposatutako proiektu eta prestakuntza-ekintzek egokien jotako metodologia-formatua izaten ahal dute: ikastaro monografikoak, prestakuntza-pilulak, prestakuntza-elkartrukeak, prestakuntza-topaketak eta elkarriketarako mahaia. Prestakuntza-jarduketak aurrez aurrekoak zein on line izaten ahalko dira.

Oro har, 8 eta 60 ordu bitarteko prestakuntza-proiektuak aurkeztu ahalko dira. Baldin eta prestakuntza-ekintzak 40 ordutik gorakoak badira edo horietan 4 prestatzaile edo gehiago badaude, koordinatzaile pedagogiko presentzial bat egon beharko da, eta horrek bere gain hartuko ditu zeregin hauek: bermatzea bilakaera egokia dutela prestakuntza-ekintzaren fase guztiek (diseinua, programazioa, hedapena, izen-emateak, hautaketa, garapena eta ebaluazioa); Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko jarraipen-bileretan parte hartzea; prestakuntza-ekintzako saio guztietara aurrez aurre zein on line bertaratzea, ikasleen bertaratzeari eta parte-hartzeari buruzko segimendua egiteko; ebaluazioa egitea, eta memoria eta dokumentazio didaktikoa aurkeztea. Aurrekoa gorabehera, 40 ordutik beherako prestakuntza-ekintzetan ere koordinaziorako pertsona bat egoten ahal da, eta horrek eragindako gastua, dirulaguntzari dagokionez, L apartatuan ezarritakoarekin bat kalkulatu da.

Prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten ikasleak:

Parte-hartzaileek 18 urte baino gehiago izan beharko dituzte. Salbuespenez, 18 urtetik beherakoendako prestakuntza-jarduerak egiten ahalko dira, baldin eta legezko tutoreen berariazko eta idatzizko baimena badute eta prestakuntza parte-hartzaileen adinerako metodologikoki egokituta badago. Lehentasuna izanen dute Iruñean bizi direnek.

Prestakuntza-ekintza bat egiteko gutxienez 8 pertsona behar dira. Ikastaroan izena eman dutenen kopurua ez bada ezarritako gutxienez iristen, ezin izanen da egin. Talde mistoen kasuan, parte hartzen duten gizonen eta emakumeen ehunekoa berdintsua izatea gomendatzen da.

Prestatzaileak, irakasleak eta koordinatzaileak:

Prestakuntza-ekintza behar bezala egiaztatutako titulazioa eta prestakuntza duten pertsonak koordinatu eta emanen dute. Entitateek prestatzaileen, irakasleen eta koordinatzailearen CVak aurkeztu behar dituzte Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrean.

Prestakuntza-ekintzetan sortutako materialak

Irabazi-asmorik gabeko elkarre edo entitateak prestakuntza-ekintzari buruzko memoria bat osatu beharko du, VII.1. eranskinarekin bat.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Prestakuntza-ekintzen ondorioz sortutako materialak –interés bereziki jotzat jo daitezkeenak– Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko “Zentro. Elkarlaneko Gunearen” Liburutegian eta Dokumentazio Zentroan jaso eta artxibatuko dira. Orobat, “kalitatezko esperientzia” edo “jardunbide egoki” gisara biltzen ahalko dira, eta horiek dokumentatu, aurkeztu eta/edo hedatu (argitalpen, webgune, buletin elektronikoa, jardunaldi eta abarren bitartez). Agiri, publizitate, irudi zein material orotan hizkuntza inklusiboa erabili beharko da, emakumeen irudi baztertzailerik eta estereotipo sexista oro ekidin eta honako balio hauek dituen irudi bat sustatuko da: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero-rol eta -nortasun askotarikoak.

Jarduketaren prezioak

Prestakuntza-jarduketak eta horien barneko jarduerak doakoak eta irekiak izan behar dira. Doakoa ez den jarduerara oro justifikatu egin beharko da eta dirulaguntza kudeatzen duen unitateak baimendu beharko du aldez aurretik. Horrez gain, errenta-maila baxua duten pertsonen sarbidea errazteko konpentsazio-neurririk ez ezarri beharko da. Horiek horrela, entitate onuradunak idatziz egin beharko du doakoa ez den jarduerara egiteko beharra justifikatzeko eskaera, betiere jarduerara hori programatu eta hedatu baino lehen. Dirulaguntza kudeatzen duen unitateak baimena ematen badu bakarrik egingen da jarduerara.

Berariaz deialdi honetatik at geldituko dira, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren (2006ko 21. NAO, otsailaren 17koan, argitaratua) 5. artikuluko baldintzak betetzen ez dituztenek gain, honako proiektu eta jarduerak hauek:

- 1.- Oro har herritarrei irekita ez dauden programa, proiektu, jarduerak eta jarduketak edota edozein motatako irizpide sexista, arrazista, xenofobo eta diskriminatzaileak aplikatzen dituztenak. Horrez gain, diruz lagundutako jarduerak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna lagundu beharko du.
- 2.- Deialdiaren xedearekin bat ez datozen programa, proiektu, jarduerak edo jarduketak eta/edo Udalaren berariazko bestelako deialdi batean jasotako helburuei eskusiboki zuzendutakoak badira.
- 3.- Giza eskubideak eta bizikidetzaren balioak errespetatzen ez dituzten jarduerak eta proiektuak, edo herritarrentzat iraingarriak gerta daitezkeen sinbolo zein elementuak dituztenak, haien duintasuna urratzen dutenak edo indarkeriaren justifikazioa iradokitzen dutenak, baita alderdi politikoek edo izaera politiko nabariko elkarteek gauzatutako jarduerak ere.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENENKO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 400.000 €

- A epigrafea: 50.000 euro
- B epigrafea: 226.000 euro
- C epigrafea: 40.000 euro
- D epigrafea: 80.000 euro
- E epigrafea: 4.000 euro

Entitate eskatzaile bakoitzari dagokion dirulaguntza zehaztu ondoren, C.3 apartatuan ezarritako irizpide eta gehieneko zenbatekoekin bat, ezarritako epigrafeetakoren batean kreditu erabilgarria geldituko balitz, gerakin hori ezarritako zenbatekoa nahikoa izan ez den deialdi honetako beste epigrafe batzuei esleitzen ahalko zaie, hain zuzen ere, hainbanaketa handiena duen epigrafeari.

Behin deialdia ebatzita, emandako dirulaguntzari uko egin eta hura itzultzen bada, emandako dirulaguntzaren kopuruak 80/92430/482090 aurrekontu-partidan jasanaraziko dira, eta ez da aldatuko gainerako entitate onuradunei emandakoa. Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 80/92430/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Dirulaguntzak eskatu eta onetsitako defizitaren –zeharkako gastuak barne– ehuneko bat estaliko du. Jardueraren kostu osoaren eta dirulaguntzaren arteko diferentzia izanen da defizita, eta azkenean, hori izanen da deialdi honetan eskatutako zenbatekoa. Dirulaguntzak ezin izanen du gainditu, inolaz ere, proiektuaren kostu osoaren % 75, eta entitateak kostuaren % 25 ordaindu beharko du gutxienez, dela funts propioen bidez, dela beste dirulaguntza batzuen bidez. Dirulaguntza proportzioa kontuan hartuta emanen da lortutako puntuazioaren, onartutako aurrekontuaren gehieneko kopuruaren (VIII. eranskina) eta proiektua edo jardura zein tartetan egon eta tarte horretako gehienezko puntuaren artean, eta, betiere, erabilgarri dagoen aurrekontuaren arabera. Hona hemen dirulaguntzak emateko ehunekoak, bost epigrafeetarako:

50 eta 59 puntu bitarte.....onartutako aurrekontuaren % 50.
60 eta 69 puntu bitarte..... onartutako aurrekontuaren % 60.
70 eta 79 puntu bitarte..... onartutako aurrekontuaren % 70.
80 eta 89 puntu bitarte..... onartutako aurrekontuaren % 80.
90 eta 99 puntu bitarte..... onartutako aurrekontuaren % 90.
100 puntu..... Onartutako aurrekontuaren % 100.

Proiektu/jardueren puntuazioekin loturiko portzentajeak dira diruz lagundu daitezkeen gehieneko mugak; hortaz, ehuneko horiek baino gutxiagoko dirulaguntza eman daiteke, balorazioa bera eta aurrekontuaren eskuragarritasuna direla-eta.

A, B, C eta D modalitateetan, dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izanen da, inolaz ere, 11.000 € baino handiagoa izan, eta E modalitatean emanen den dirulaguntza, 1.500 €-koa izanen da gehienez ere.

4. Hainbanatzeko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu: Epigrafe bakoitzeko eskatzaileentzat kalkulaturako dirulaguntza guztizkoak epigrafe bakoitzerako gehienez ezarritako zenbatekoa gainditzeko badu, entitate onuradun bakoitzari dagokion zenbatekoa proportzionalki kalkulatu da epigrafeko onuradun guztien artean.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	400.000 €	2. Urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

- Legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta dagokien Erregistroan izena emanda izatea, eskaera aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Dokumentazio hori egunean eduki beharko dute.
- Irabazi-asmorik ez izatea eta irabazi-asmoa duten entitateen mende ez egotea, ez ekonomikoki eta ez instituzionaliki.
- Iruñean edukitzea helbidea edo egoitza. Salbuespenez, deialdian parte hartu nahi duten Iruñetik kanpoko entitateek proiektu osoa Iruñean eginen dela egiaztatu beharko dute, eta eskatzen ahalko zaie Iruñean aurreko urtean/urteetan egindako proiektuetan esperientzia dutela erakustea.
- Diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera edo jarduketa osorik Iruñeko udal-mugartean egitea. Diruz lagundutako jarduerak, salbuespenez, udal-mugartea gainditzen badu, Udalaren interesen aldekoa izan beharko du, zuzenean edo zeharka, halako moduz non baldintza horrek aski justifikaturik gelditu beharko baitu dirulaguntza eman baino lehen, udal-teknikarien txostenaren bidez.
- Lankidetza hitzarmenik edo kontraturik sinaturik ez izatea Iruñeko Udalarekin, dirulaguntza zer programa, proiektu, ekintza edo jardueretarako eskatu eta horretarako. Deialdi honen bateragarritasuna eta tokiko entitate bereko edo beste entitateenak deialdi honetako Ñ apartatuan xedatutakoari lotuko zaio.
- Proposatutako helburuak betetzeko behar bezalako egitura edukitzea jada jardunean, eta horiek lortzeko beharrezko ibilbidea, esperientzia eta gaitasuna egiaztatzea.
- Aurkeztutako proiektu eta jardueretarako erantzukizun zibileko aseguruia izatea, eta boluntarioendako istripu-asegurua, indarreko legediarekin bat.
- Sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituak edo gizakien salerosketakoak egin ez izana, adingabeekin ohiko kontaktua izatea dakarten jarduerak egiteko.



- i) Aurreko deialdietan ezarritako betebeharrak egunean izatea Udalaren aurrekontuen konturako dirulaguntza*

(*) Aipatutako betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Berariaz honako hauek daude deialdi honetatik at:

- Irabazi-asmoa duten enpresa, entitate eta pertsona fisiko zein juridikoz osatutako pertsona-taldeak.
- Deialdiaren xedearekin bat ez datozen programa, proiektu, jarduera edo jarduketak aurkeztu dituzten elkarteak eta lagun-taldeak, eta/edo horiek Udalaren bestelako deialdi batean jasotako helburuei zuzendutakoak badira.
- Zehapen administratibo edo penal irmo baten xede izan diren pertsonak, dagokien zehapenak ezarritako epean sexu-zioak direla eta diskriminatzeagatik.

Dirulaguntzen deialdira aurkezteko argibideak, laguntza, orientazioa edota aholkularitza behar duten pertsona eta entitateek Deialdiaren Unitate Kudeatzailearengana jo dezakete, Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrean (Descalzos k. 72, 1. sol. Tel.: 948-420506).

Dirulaguntzaren izaera berezia dela eta, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzetik:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

A) Dirulaguntzaren xede den helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo jokabideari heltzea. Jarduera Iruñeko lurralde-esparruan egingen da –D.1.d) apartatuan aurreikusitakoa salbu–, eta jarduera gauzatzeko gaitasuna duten pertsonak koordinatu eta garatuko dute.

B) Behar bezalako publizitatea egitea, dirua zer programa, proiektu, jarduera edo jarduketatarako jaso eta horiek Iruñeko Udalak osorik edo hein batean finantzatu dituela jakitera emate aldera.

C) Iruñeko Udalari baimena eta laguntza ematea diruz lagundutako programaren, proiektuaren, jardueraren edo jarduketaren garapena hedatzeko, xede harturik herritarren partaidetzaren arloko jarduketak bultzatzea. Diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera eta jarduketaren harira prestatutako jarduketak, materialak eta hedapen- zein sentsibilizazio-kanpainak participacionciudadana@pamplona.es helbidera igorri behar dira, edo, bestela, prestakuntza-ekintzak abiarazi aurretik unitate kudeatzaileak hedapen- eta dokumentazio-zereginetarako ezartzen duen helbidera.

D) Harremanetan eta koordinaturik egotea Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrarekin, Herritarren Partaidetzako teknikarien bitartez, proiektuak iraun bitartean.

E) Bide ematea Alorreko teknikariek eskatzen dituzten elkarte edo entitateetara bisitak egiteari, programa, proiektu, jarduera edo jarduketaren jarraipena egin eta parte-hartzaileei programaren eta Udalaren baliabideen berri emate aldera.

F) Organo emailearen aurrean justifikatzea, justifikazio-txostenak aurkeztuta, baldintzak eta betekizunak bete dituztela, bai eta diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera edo jarduketak egin direla eta dirulaguntza zertarako izan eta helburu hori bete dutela ere.

G) Memoria bat egitea, programa, proiektu, jarduera edo jarduketaren gainean. Behin betiko memoria eta justifikazio-agiriak aurkezteko epea 2023ko azaroaren 10ean amaituko da. Salbuespenez, egun horretarako jarduera guztiak amaituta egon ezean, behin-behineko memoria eta data horretara arte egindako jardueren egiaztagirak aurkeztu beharko dira, aipatutako epea amaitu baino lehen. Behin betiko memoria eta abenduan egindako jardueren justifikazioa 2024ko urtarrilaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dira.

H) Men egitea organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduketei, bai eta kontrol-organo eskudunek egiaztatzeko zein finantzaketa kontrolatzeko egiten ahal dituzten beste guztiei ere, betiere jarduketa horien ondorioz eskatzen dizkieten argibideak oro eman beharko dituztelarik, halakoak udal-fitxategietan jasota egon ezean.

I) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

K) Kontabilitate-liburuak, erregistro eginbidetuak eta gainerako agiriak edukitzea, behar bezala beterik eta eguneraturik entitate onuradunari kasuan-kasuan aplikatzen ahal zaizkion merkataritzako legeek eta lege sektorialek ezarritakoarekin bat.

L) Gordetzea jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak –agiri elektronikoak barne–, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan daitezkeen neurrian.

M) Iruñeko Udalari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabar, betekizun eta baldintzetan gertatzen diren aldaketak oro, eta, behar izanez gero, hari behar den baimena eskatzea.

N) Unitate kudeatzaileari jakinaraztea proiektua garatzen den bitartean entitate eskatzailearen edo eskatzaileen nortasun juridikoan izandako aldaketen berri: estatutuak, entitatearen legezko ordezkaria, etab. Proiektu bat aldatzeko eskabidea aldaketa justifikatzen duten inguruabarrak gertatu eta berehalakoan aurkeztu behar da, eta betiere aldaketak sartu baino lehenago, deialdi honen F) apartatuan adierazitakoaren arabera.

O) Jasotako zenbatekoak itzultzea, hala deialdi honen Q) apartatuan nola Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean adierazitako gainerako kasuetan.

P) E epigrafeari dagozkion prestakuntzen kasuan, bertaratze-agiriak ematea ikastaroa behar bezala amaitu duten ikasleei. Agiri horietan Iruñeko Udalaren logotipoa agertuko da, eta horrekin batera testu hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala".

Q) Material, irudi eta agiri guztiek emakumeen irudi baztertzailer oro ekidin beharko dute, eta berdintasun balioak, rol askotarikoak eta emakumeen eta gizonen arteko erantzunkidetasuna sustatu beharko dute.

R) Testu guztiek hizkuntza ez-sexista erabiliko dute.

S) Gardentasun-betebeharrak dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten entitateendako. Deialdi honen kargura onuradun diren entitateek gardentasun-betebeharrari buruzko Adierazpena aurkeztu beharko dute, izapidarekin edo honekin batera doan VI. ERANSKINAREN ereduarekin bat. Adierazpen hori dirulaguntzak justifikatzeko agiriekin batera aurkeztuko da, eta oinarri hauetako P.2 apartatuan horretarako ezarritako epearen barruan.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena eman beharko dizkiote dirulaguntzaren xede diren jarduera edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:

- Komunikazio edo publizitate idatzi zein grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan) Udalaren logotipoa txertatu beharko da, eta honako legenda hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatzutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Betebehar hau ez bada betetzen dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: ☐ BAI ☒ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Aurreikusi gabeko inguruabarrak direla medio, aldaketak egiten ahalko dira proiektu edo jardueretan, hasierako aurreikuspenei dagokienez, inguruabar horiek kontuan hartzekoak badira jarduketa zuzen betetzeko eta aldaketa horiek ez badute eragiten funtsezko aldaketarik (izaera edo helburuei dagokienez) proiektuan edo jardueretan. Halaber, behin emanda ezin izanen da dirulaguntzaren zenbatekoa aldatu, eta beraz, zeharkako gastuak barne (eskatzen badira) eskatutako eta onartutako aurrekontu osoa justifikatu beharko da.

Aurretiko baimena beharko da baldin eta aldaketek ukitzen badituzte programaren, proiektuaren edo jardueren helburuak/xedeak eta proiektuaren hartzaile diren pertsonak eta/edo hasiera batean aurrekontuan sartutako kontzeptuetakoren batean % 20ko aldaketa dakartenak. Aldaketa horiek baimenduko dira, baldin eta eraginik ez badute aplikatutako balorazio-irizpideetan eta dirulaguntza emateko egintzaren norgehiagokan. Horretarako, pertsona edo entitate onuradunak eskaera arrazoitua aurkeztu beharko dio, idatziz, Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko unitate kudeatzaileari, proposatutako aldaketa egiteko beharra justifikatuz, aldaketak sartzeko beharraren berri izan eta berehala, eta betiere aldaketak sartu baino lehenago eta diruz lagundutako programa, proiektua, jarduerak edo jarduketak egiteko epea amaitu baino lehen.

Proiektua garatzen den bitartean entitate onuradunak sartzen baditu deialdi honetan ezarritakoarekin bat aldeztu aurretik baimendu gabeko aldaketak, jasotako dirulaguntzak osorik edo hein batean itzularaziko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza kobratzeko eskubidea osorik edo hein batean galduko da. Proiektuaren barruan hainbat jarduera independente baldin badaude, baldintza horrek soilik eraginen die baimendu gabeko aldaketak izan dituzten jardueri.

Esku-hartzea gauzatzean gertatzen diren gainerako gorabehera eta aldaketak dagokion txosten-memoriaren bidez jakinaraziko dira, proiektuan baloratzen ez diren alderdien edo xehetasunetan aldaketa hutsak baitira. Jardueraren finantza-egiaztapen eta/edo -justifikazioaren fasean aurretik adierazitako baldintzak betetzen dituzten aldaketak bakarrik joko dira egokituz.

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak aurkezteko tokia:

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" delako izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T apartatuetan aipatutako agiriak.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

2. Eskaerak aurkezteko epea: 35 egun natural, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere “Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat” izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) apartatuak aipatzen dituen agiriak aurkeztuko beharko dira.

Ez da beharrezkoa izanzen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administraziok egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalarai baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen edo agiriak aurkezten, edo bestela, ez badio Iruñeko Udalarai baimenik ematen agiriok zer administraziok egin eta hartatik eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldeztu aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

A) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztariak: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskaera aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanzen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu. Horretarako, IV. eranskineko erantzukizunpeko adierazpena sinatu beharko da.

B) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoan ezarritako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

C) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2. artikularekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin izanen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

D) Deialdiak aurreikusten duenean eskatzailea nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoen talderen bat izateko aukera –horiek publikoak zein pribatuak izaki–, eskaeran berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

E) Adierazpen bat, non jakitera emanen baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Adierazpena izapide telematikoa emandako jarraibideekin bat egingen da. ☒ BAI ☐ EZ

F) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

- Entitatearen identifikazio-fitxa (V.1. ERANSKINA. ENTITATEAREN IDENTIFIKAZIO-FITXA).
- Proiektuaren proposamena egiteko formularioa eta egin beharreko jardueren zerrenda eta aurrekontu osoa (V.2. ERANSKINA. PROIEKTUAREN PROPOSAMENA EGITEKO FORMULARIOA).
- Dirulaguntzaren xedea diren jardueren gastu eta diru-sarreraren aurrekontu xehatua, ereduaren arabera (V.3. ERANSKINA. JARDUERA BAKOITZERAKO BETE BEHARREKO ORRIA)
- Dirulaguntzari egotzi nahi zaizkion zeharkako gastuen zerrenda (V.4. ERANSKINA. ZEHARKAKO GASTUAK).

G) Proiektuan garatu beharreko jarduerak hala eskatzen badute, haurrak eta nerabeak babesteko indarreko legeek ezarritako neurriak betetzen direla aitortzeko erantzukizunpeko adierazpena bete beharko da, baita datuen babesari buruzkoa ere, izapide telematikoa datorrenarekin bat.

Telematikoki egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kautotuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.



H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

A, C eta D EPIGRAFEETARAKO IRIZPIDEAK:

1.- Entitate eskatzaileari dagozkion irizpideak (15 puntu bitarte).

1.1. Proiektua kudeatzeko gaitasun nahikoa eta egiaztatua izatea, kontuan harturik entitateak edo elkarteak zer-nolako azpiegiturak (fisikoak eta espazioari dagozkionak) eta baliabideak (giza-baliabideak, ekonomikoak eta materialak) dituen (5 puntu bitarte).

Maila baxua: entitatearen baliabide materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak azaltzen ez badira (0 puntu).

Maila ertaina: alderdi horiek azaletik izendatzen edo deskribatzen baditu (3 puntu bitarte).

Maila altua: alderdi horien deskribapen sakonagoa eta osoagoa egiten badu (5 puntu bitarte)

1.2. Entitatearen antzinatasuna eta esperientzia, aurkeztutako en antzeko proiektuak kudeatzean, eta proiektu horien oihartzun egiaztatua gizaratean (5 puntu bitarte).

Maila baxua: Urte bat baino gehiagoko antzinatasuna (1 puntu).

Maila ertaina: 3 urtetik gorako eta 8 urtetik beherako antzinatasuna (3 puntu).

Maila altua: 8 urte edo gehiagoko antzinatasuna (5 puntu).

1.3. Programatutako jardueren iraupena eta irismena (zenbat lagunengan izan dezakeen eragin zuzena) (3 puntu bitarte).

Iraupen urrikoak izan (egun 1etik 3 hilabetera bitarte) eta jende gutxi (20 lagun edo gutxiago) biltzen dituzten jarduerak (0 puntu).

Iraupen urrikoak izan (egun 1etik 3 hilabetera bitarte) eta jende ugari (51 lagun edo gehiago) biltzen dituzten jarduerak (1 puntu).

Iraupen luzekoak izan (3 hilabetetik gora) eta jende gutxi (50 lagun edo gutxiago) biltzen dituzten jarduerak (2 puntu). Iraupen luzekoak izan (3 hilabetetik gora) eta jende ugari (51 lagun edo gehiago) biltzen dituzten jarduerak (3 puntu).

1.4. Elkartea eratzen duten kideen kopurua (zuzendaritza-batzordea, boluntarioak eta bazkideak) (2 puntu arte)

Maila baxua. 3-10 lagun. (0 puntu).

Maila ertaina. 11-50 lagun (1 puntu).

Maila altua. 51 lagun edo gehiago. (2 puntu).

2.- Proiektuak baloratzeko irizpideak, kalitate teknikoa eta proiektuaren bideragarritasuna (85 puntu bitarte).

2.1. Gauzatuko diren jardueren alde aurreko elaborazio- eta kalitate-maila nahikoa, bideragarritasun teknikoa zein ekonomikoa eta jasagarritasuna. Entitatearen gaitasuna proiektua hedatzeko (50 puntu bitarte).

2.1.1. Proiektuaren oinarria: 10 puntu bitarte.

-0 puntu, oinarririk egon ezean, edo hura ez espezifikoa bada.

-5 puntu bitarte, deskribapena orokorra izanez gero.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

-10 puntu bitarte, proiektuaren berariazko oinarriak aurkeztuz gero, bertan adierazita aurrekariak, testuingurua, ikuspuntua eta jarduketan lehenespena.

2.1.2. Helburuak: 10 puntu bitarte.

-0 puntu, helburu argirik egon ezean.

-5 puntu bitarte, helburu orokorrak eta espezifikak egon eta koherenteak badira proiektuan planteatzen den behararekin.

-10 puntu bitarte, planteatutako helburuak, aurrekoaz gain, operatiboak eta egingarriak badira eta bat badatoz proiektuaren oinarriarekin.

2.1.3. Jarduerak: 10 puntu bitarte.

-0 puntu, jarduerarik planteatu ezean.

-5 puntu bitarte, aurkeztutako jarduerak berariazkoak, egingarriak eta planteatutako helburuekin koherenteak izanez gero.

-10 puntu bitarte, aurrekoaz gain, adierazten badira erabiliko den metodologia eta teknikak, behar diren baliabideak eta egutegia.

2.1.4. Aurrekontuaren egokitzapena eta koherentzia: 10 puntu bitarte.

-0 puntu, aurrekonturik aurkeztu ezean, eskatzen den kopurua baino aurkeztu ez bada, edo hori ez bada egokitzen edo ez badator bat planteatutako jarduerekin.

-5 puntu bitarte, aurrekontuko partida batzuen azalpena ematen bada.

-10 puntu bitarte, azalpena behar duten partida guztien kalkulua argitzen bada, planteatutako jarduerekin modu koherente eta justifikatuan, eta, gainera, aurkeztutako gastuak deialdi honen bidez diruz laguntzen ahal badira.

2.1.5. Ebaluazio-adierazleak: 10 puntu bitarte.

-0 puntu, proiektuaren ebaluazioa adierazi ezean.

-5 puntu bitarte, aurkeztutako ebaluazioa ulargarria izan bai, baina ez badu adierazlerik aurkeztu.

-10 puntu bitarte, argi eta garbi adierazten bada garatu beharreko ebaluazio-metodoa, eta jasotzen baditu balorazio-adierazleak eta -parametroak (kualitatiboak edo kuantitatiboak) eta esperotako emaitzak.

2.2. Lehendik izatea (2018-2022) herritarren partaidetzarako dirulaguntzaren onuraduna. 10 puntu bitarte

0 puntu, ez bada onuradun izan.

5 puntu bitarte, 1-2 urtetan izan bada onuradun.

10 puntu bitarte, 3 urte edo gehiagotan izan bada onuradun.

2.3 Osagarritasuna eta koordinazioa proiektua garatzean beste entitate eta gizarte-baliabide batzuekin (gehienez ere 10 puntu).

0 puntu, ez bazaie aipamenik egiten beste entitate batzuei eta bere kabuz aritzen bada.

5 puntu bitarte, jarduketa-xede bera duten edo auzo berekoak diren beste entitate eta instituzio batzuekin koordinatzeko jarduketak aurreikusten badira.

10 puntu bitarte, proiektua osagarria bada eta jarduketa-xede bera duten edo auzo berekoak diren beste entitate eta instituzioekin koordinatzeko jarduketak aurreikusten badira.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

2.4. Kultur aniztasunari eta kulturartekotasunari balioa ematen dioten jarduerak egitea eta jatorri desberdineko pertsonen arteko bizikidetza sustatzea (5 puntu bitarte).

0 puntu, inongo jarduerarik aurkeztu ezean.

3 puntu bitarte, 1-3 jarduera aurkeztuz gero.

5 puntu bitarte, 4 jarduera edo gehiago aurkeztuz gero.

2.5. Genero-ikuspegia barne hartzen duten jarduerak sustatzea (10 puntu bitarte).

0 puntu, proiektuaren diseinuan eta hura gauzatzean genero-ikuspegia kontuan hartu ezean, edo ez badu hizkuntza ez-sexistarik.

5 puntu bitarte, proiektuak genero-ikuspegia txertatu badu oinarrietan (esaterako, genero-berdintasuna xede duten helburuak) eta/edo planteatutako jardueretan (genero-berdintasuna sustatzeko berariazko jarduerak, emakumeen partaidetza sustatzekoak, etab.).

10 puntu bitarte, horrez gain, aurreikusi badira generoak proiektuan duen inpaktuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak (genero-ikuspegia baloratzeko berariazko adierazle kualitatiboak zein kuantitatiboak, sexuen arabera banaturiko datuak, etab.) eta berariaz halakoak adierazten badira.

A, C eta D EPIGRAFEAK: Ezin izanen dira dirulaguntzen onuradun izan osoko balorazioan (entitatea eta proiektua) gutxienez 50 puntu lortzen ez dituzten elkarteak, eta, horretaz gain, gutxienez 7 eta 43 puntu erdietsi beharko dituzte, hurrenez hurren, entitateari eta proiektuari buruzko irizpideetan.

Ez dira baloratuko deialdiaren xedeari lotzen ez zaion proiektu edo programa batean sarturik dauden jarduketa edo jarduera solteak.

B EPIGRAFERAKO IRIZPIDEAK:

1.- Entitate eskatzaileari dagozkion irizpideak (15 puntu bitarte).

1.1. Proiektua kudeatzeko gaitasun nahikoa eta egiaztatua izatea, kontuan harturik entitateak edo elkarteak zer-nolako azpiegiturak (fisikoak eta espazioari dagozkionak) eta baliabideak (giza-baliabideak, ekonomikoak eta materialak) dituen (5 puntu bitarte).

Maila baxua: entitatearen baliabide materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak azaltzen ez badira (0 puntu).

Maila ertaina: alderdi horiek azaletik izendatzen edo deskribatzen baditu (3 puntu bitarte).

Maila altua: alderdi horien deskribapen sakonagoa eta osoagoa egiten badu (5 puntu bitarte)

1.2. Entitatearen antzinatasuna eta esperientzia, aurkeztutakoen antzeko proiektuak kudeatzean, eta proiektu horien oihartzun egiaztatua gizartean (5 puntu bitarte).

Maila baxua: Urte bat baino gehiagoko antzinatasuna (1 puntu).

Maila ertaina: 3 urtetik gorako eta 8 urtetik beherako antzinatasuna (3 puntu).

Maila altua: 8 urte edo gehiagoko antzinatasuna (5 puntu).

1.3. Programatutako jardueren iraupena eta irismena (zenbat lagunengan izan dezakeen eragin zuzena) (3 puntu bitarte).



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Iraupen urrikoak izan (egun 1etik 3 hilabetera bitarte) eta jende gutxi (20 lagun edo gutxiago) biltzen dituzten jarduerak (0 puntu).

Iraupen urrikoak izan (egun 1etik 3 hilabetera bitarte) eta jende ugari (51 lagun edo gehiago) biltzen dituzten jarduerak (1 puntu).

Iraupen luzekoak izan (3 hilabetetik gora) eta jende gutxi (50 lagun edo gutxiago) biltzen dituzten jarduerak (2 puntu).

Iraupen luzekoak izan (3 hilabetetik gora) eta jende ugari (51 lagun edo gehiago) biltzen dituzten jarduerak (3 puntu).

1.4. Elkartea eratzen duten kideen kopurua (zuzendaritza-batzordea, boluntarioak eta bazkideak) (2 puntu arte)

Maila baxua. 3-10 lagun. (0 puntu).

Maila ertaina. 11-50 lagun (1 puntu).

Maila altua. 51 lagun edo gehiago. (2 puntu).

2.- Proiektuak baloratzeko irizpideak (85 puntu bitarte).

2.1. Kolektibo zaugarriekin egin beharreko jarduerak sustatzea (gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan daudenak, gizarte-zailtasunean dauden adinekoak, desgaitasunen bat dutenak, gizarte-zailtasunean dauden etorkinak, errefuxiatuak, gizarte-zailtasunean dauden emakumeak, adimen-osasun arazoak dituzten pertsonak, etab.). Pertsona horiek parte-hartze zuzena izan beharko dute (10 puntu bitarte).

0 puntu, proiektuak ez badu inongo jarduerarik.

5 puntu bitarte, proiektuak kolektibo horiekin egiteko 1-5 jarduera baditu.

10 puntu bitarte, proiektuak kolektibo horiekin egiteko 6 jarduera edo gehiago baditu.

2.2. Jardueretan boluntarioen parte-hartzea sustatzea (10 puntu bitarte).

0 puntu, planteatutako proiektuak ez badu boluntario-lana sustatzen edo giza baliabideen artean ez badira boluntarioak aipatzen.

5 puntu bitarte, boluntarioen beharra aipatuz gero.

10 puntu bitarte, trebatutako boluntarioak eskura eduki eta proiektua gauzatzeko behar diren boluntario-motaren zerrenda bat badago.

2.3. Lehendik izatea (2018-2022) herritarren partaidetzarako dirulaguntzaren onuraduna. 5 puntu bitarte

0 puntu, ez bada onuradun izan.

3 puntu bitarte, 1-2 urtetan izan bada onuradun.

5 puntu bitarte, 3 urte edo gehiagotan izan bada onuradun.

2.4. Gauzatuko diren jardueren alde aurreko elaborazio- eta kalitate-maila nahikoa aurkeztea eta bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa eta jasangarritasuna edukitzea (35 puntu bitarte).

2.4.1. Proiektuaren oinarriak, entitatearen partez. (10 puntu bitarte).

-0 puntu, oinarriak egon ezean edo hura ez espezifikoa bada

-5 puntu bitarte, deskribapena orokorra izanez gero

-10 puntu bitarte, proiektuaren berariazko oinarriak aurkeztuz gero, bertan adierazita aurrekariak, testuingurua, ikuspuntua eta jarduketaren lehenespena.



2.4.2. Helburuak: 5 puntu bitarte.

-0 puntu, helburu argirik egon ezean.

-3 puntu bitarte, helburu orokorrak eta espezifikak egon eta koherenteak badira proiektuan planteatzen den beharrarekin.

-5 puntu bitarte, planteatutako helburuak, aurrekoaz gain, operatiboak eta egingarriak badira eta bat badatoz proiektuaren oinarriarekin.

2.4.3. Jarduerak: 10 puntu bitarte.

-0 puntu, jarduerarik planteatu ezean.

-5 puntu bitarte, aurkeztutako jarduerak berariazkoak, egingarriak eta planteatutako helburuekin koherenteak izanez gero.

-10 puntu bitarte, aurrekoaz gain, adierazten badira erabiliko den metodologia eta teknikak, behar diren baliabideak eta egutegia.

2.4.4. Aurrekontuaren egokitzapena eta koherentzia: 5 puntu bitarte.

-0 puntu, aurrekonturik aurkeztu ezean, eskatzen den kopurua baino aurkeztu ez bada, edo hori ez bada egokitzen edo ez badator bat planteatutako jarduerekin.

-3 puntu bitarte, aurrekontuko partida batzuen azalpena ematen bada.

-5 puntu bitarte, azalpena behar duten partida guztien kalkulua argitzen bada, planteatutako jarduerekin modu koherente eta justifikatuan, eta, gainera, aurkeztutako gastuak diruz laguntzen ahal badira.

2.4.5. Ebaluazio-adierazleak: 5 puntu bitarte.

-0 puntu, proiektuaren ebaluazioa adierazi ezean.

-3 puntu bitarte, aurkeztutako ebaluazioa ulargarria izan bai, baina ez badu adierazlerik aurkeztu.

-5 puntu bitarte, argi eta garbi adierazten bada garatu beharreko ebaluazio-metodoa, eta jasotzen baditu balorazio-adierazleak eta -parametroak (kualitatiboak edo kuantitatiboak) eta esperotako emaitzak.

2.5 Osagarritasuna eta koordinazioa proiektua garatzean beste entitate eta gizarte-baliabide batzuekin (gehienez ere 5 puntu).

0 puntu, ez bazaie aipamenik egiten beste entitate batzuei eta bere kabuz aritzen bada.

3 puntu bitarte, jarduketa-xede bera duten edo auzo berekoak diren beste entitate eta instituzio batzuekin koordinatzeko jarduketak aurreikusten badira.

5 puntu bitarte, proiektua osagarria bada eta baterako jarduketak aurreikusten baditu auzoko entitate eta instituzioekin edo jarduketa-xede bera dutenekin.

2.6. Kultur aniztasunari eta kulturartekotasunari balioa ematen dioten jarduerak egitea eta jatorri desberdineko pertsonen arteko bizikidetza sustatzea (5 puntu bitarte).

0 puntu, inongo jarduerarik aurkeztu ezean.

3 puntu bitarte, 1-3 jarduera aurkeztuz gero.

5 puntu bitarte, 4 jarduera edo gehiago aurkeztuz gero.

2.7. Genero-ikuspegia barne hartzen duten jarduerak sustatzea (10 puntu bitarte).

0 puntu, proiektuaren diseinuan eta hura gauzatzean genero-ikuspegia kontuan hartu ezean, edo ez badu hizkuntza ez-sexistarik.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

5 puntu bitarte, proiektuak genero-ikuspegia txertatu badu oinarrietan (esaterako, genero-berdintasuna xede duten helburuak) eta/edo planteatutako jardueretan (genero-berdintasuna sustatzeko berariazko jarduerak, emakumeen partaidetza sustatzekoak, etab.).

10 puntu bitarte, horrez gain, aurreikusi badira generoak proiektuan duen inpaktuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak (genero-ikuspegia baloratzeko berariazko adierazle kualitatiboak zein kuantitatiboak, sexuen arabera banaturiko datuak, etab.) eta berariaz halakoak adierazten badira.

B EPIGRAFEA: Ezin izanen dira dirulaguntzen onuradun izan osoko balorazioan (entitatea eta proiektua) 50 puntu lortzen ez dituzten elkarteak, eta, horretaz gain, gutxienez 7 eta 43 puntu erdietsi beharko dituzte, hurrenez hurren, entitatearen eta proiektuaren ataletan. Ez dira baloratuko deialdiaren xedeari lotzen ez zaion proiektu edo programa batean sarturik dauden jarduketa edo jardura solteak.

E EPIGRAFERAKO IRIZPIDEAK

1.- Entitate edo elkarte eskatzaileari dagozkion irizpideak: (10 puntu bitarte).

1.1. Proiektua kudeatzeko gaitasun nahikoa eta egiaztatua izatea, kontuan harturik entitateak edo elkarteak zer-nolako azpiegiturak (fisikoak eta espazioari dagozkionak) eta baliabideak (giza-baliabideak, ekonomikoak eta materialak) dituen (5 puntu bitarte).

Maila baxua: entitatearen baliabide materialak, ekonomikoak eta giza baliabideak azaltzen ez badira (0 puntu).

Maila ertaina: alderdi horiek azaletik izendatzen edo deskribatzen baditu (3 puntu bitarte).

Maila altua: alderdi horien deskribapen sakonagoa eta osoagoa egiten badu (5 puntu bitarte)

1.2. Entitatearen esperientzia, aurkeztutakoen antzeko proiektuak kudeatzean, eta proiektu horien oihartzun egiaztatua gizartean (5 puntu bitarte).

Maila baxua: 3 urte bitarteko esperientzia (1 puntu).

Maila ertaina: 3 urtetik gorako eta 8 urtetik beherako esperientzia (3 puntu).

Maila altua: 8 urtetik gorako esperientzia (5 puntu).

2. Kolektibo zaurgarriekin egin beharreko prestakuntza-jarduerak sustatzea (gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan daudenak, gizarte-zailtasunean dauden adinekoak, desgaitasunen bat dutenak, gizarte-zailtasunean dauden etorkinak, errefuxiatuak, zailtasunean dauden haur eta gazteak, gizarte-zailtasunean dauden emakumeak, adimen-osasun arazoak dituzten pertsonak, etab.) (10 puntu bitarte).

0 puntu, proiektuak ez badu inongo jarduerarik aurkezten kolektibo horiekin.

5 puntu bitarte, proiektuak kolektibo horiekin egiteko 1-2 jardura baditu.

10 puntu bitarte, proiektuak kolektibo horiekin egiteko 3 jardura edo gehiago baditu.

3.- Prestatzaileei, irakasleei eta sarrera errazteari dagozkien irizpideak: (20 puntu bitarte).

3.1. Prestakuntza-proiektua kudeatzeko gaitasun nahikoa eta egiaztatua izatea, kontuan harturik prestatzaile eta irakasleen prestakuntza eta esperientzia (10 puntu bitarte).

Maila baxua. Irakasleek badute gai horretan prestakuntza (3 puntu bitarte)

Maila ertaina. Irakasleek 1-3 ikastaro eman izana, antzeko gaien inguruan. (5 puntu bitarte)



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Maila altua. Irakasleek 4 ikastaro edo gehiago eman izana, antzeko gaien inguruan. (10 puntu bitarte)

3.2. Hainbat neurri martxan jartzea prestakuntza eskuratzeko aukera emateko arrazoi sozioekonomikoengatik eta egoera fisiko-psikologikoarengatik prestakuntza-mota hori eskuratzeko zailtasunak dituztenei. Neurri erraztailetzat ulertuko dira: streaminga, irakurketa erraza, prestakuntzaren doakotasuna, hura eskuratzeko kolektibo batzuei lehentasuna ematea, zeinu-mintzairako itzulpena, kontziliazio-zerbitzuak, etab. (10 puntu bitarte).

Maila baxua. Ez du inolako neurririk aurreikusten(0 puntu)

Maila ertaina. 1-2 errazte-neurri aurreikusten ditu (5 puntu bitarte)

Maila altua. 3 neurri edo gehiago aurreikusten ditu. (10 puntu bitarte)

4.- Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoari lotutako irizpideak: 60 puntu bitarte.

4.1.1. Proiektuaren oinarria: 10 puntu bitarte.

-0 puntu, oinarririk egon ezean, edo hura ez espezifikoa bada.

-5 puntu bitarte, deskribapena orokorra izanez gero.

-10 puntu bitarte, prestakuntzaren berariazko oinarriak aurkeztuz gero, bertan adierazita aurrekariak, testuingurua, ikuspuntua eta prestakuntza-beharren justifikazioa.

4.1.2. Helburuak: 10 puntu bitarte.

-0 puntu, helburu argirik egon ezean.

-5 puntu bitarte, helburu orokorrak eta espezifikoak egon eta koherenteak badira proiektuan planteatzen den behararekin.

-10 puntu bitarte, planteatutako helburuak, aurrekoaz gain, operatiboak eta egingarriak badira eta bat badatoz prestakuntzaren oinarriarekin.

4. 1.3. Aurrekontuaren egokitzapena eta koherentzia: 5 puntu bitarte.

-0 puntu, aurrekonturik aurkeztu ezean, eskatzen den kopurua baino aurkeztu ez bada, edo hori ez bada egokitzen edo ez badator bat planteatutako jarduerekin.

-3 puntu bitarte, aurrekontuko partida batzuen azalpena ematen bada.

-5 puntu bitarte, azalpena behar duten partida guztien kalkulua argitzen bada, planteatutako jarduerekin modu koherente eta justifikatua.

4.1.4. Jarduerak: 10 puntu bitarte.

-0 puntu, jarduerarik planteatu ezean.

-5 puntu bitarte, aurkeztutako jarduerak berariazkoak, egingarriak eta prestakuntzarako planteatutako helburuekin koherenteak izanez gero.

-10 puntu bitarte, aurrekoaz gain, adierazten badira erabiliko den metodologia eta teknikak, behar diren baliabideak, egutegia, etab..

4.1.5. Ebaluazio-adierazleak: 5 puntu bitarte.

-0 puntu, proiektuaren ebaluazioa adierazi ezean.

-3 puntu bitarte, aurkeztutako ebaluazioa ulargarria izan bai, baina ez badu adierazlerik aurkeztu.

-5 puntu bitarte, argi eta garbi adierazten bada garatu beharreko ebaluazio-metodoa, eta jasotzen baditu balorazio-adierazleak eta -parametroak (kualitatiboak edo kuantitatiboak) eta esperotako emaitzak.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

4.1.6. Prestakuntzaren edukierari, metodologiari, erabili beharreko baliabideei eta egin beharreko jarduerari lotutako berrikuntza-maila (jardueren eraginkortasuna, ikasbide aktiboa, teknologia berrien erabilera, bateragarritasun-zerbitzuak edukitzea...): 10 puntu bitarte.

-0 puntu, proiektuak ez badu alderdi berritzailerik.

-5 puntu bitarte, proiektuak berezitasunen bat badu jarduketaren xedearekiko.

-10 puntu bitarte, proiektuak bi alderdi berritzaile edo gehiago baditu xedeaz, ikuspegiaz eta jarduketez bezainbatean.

4.1.7. Genero-ikuspegia barne hartzen duten jarduerak sustatzea (10 puntu bitarte).

0 puntu, proiektuaren diseinuan eta hura gauzatzean genero-ikuspegia kontuan hartu ezean, edo ez badu hizkuntza ez-sexistarik.

5 puntu bitarte, proiektuak genero-ikuspegia txertatu badu oinarrietan (esaterako, genero-berdintasuna xede duten helburuak) eta/edo planteatutako jardueretan (genero-berdintasuna sustatzeko berariazko jarduerak, emakumeen partaidetza sustatzekoak, etab.).

10 puntu bitarte, horrez gain, aurreikusi badira generoak proiektuan duen inpaktuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak (genero-ikuspegia baloratzeko berariazko adierazle kualitatiboak zein kuantitatiboak, sexuen arabera banaturiko datuak, etab.) eta berariaz halakoak adierazten badira.

E EPIGRAFEA: Ezin izanen dira dirulaguntzen onuradun izan eta baztertuak izanen dira guztira 50 puntuko balorazio globala (epigrafe honen 1., 2., 3. eta 4. puntuak) lortzen ez duten entitateak.

Ez dira baloratuko deialdiaren xedeari lotzen ez zaion proiektu edo programa batean sarturik dauden jarduketa edo jarduera solteak.

Ezin izanen dira dirulaguntzen onuradun izan eta baztertuak izanen dira, baita ere, 4. puntuari (Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoari lotutako irizpideak) guztira 30 puntu eskuratzen ez dituzten entitateak.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, jarraian aipatutako hauek osatua:

Batzordeburua:	Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zinegotzi ordezkaria / Iruñeko Udaleko beste zinegotzi ordezkari bat.
Mahaikideak:	
1.	Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zuzendaria / Ordezkoa: Alor bereko Idazkari Teknikoa.
2.	Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko teknikaria / Alor bereko beste teknikari bat
3.	Komunitate Ekintzako teknikari bat/Alor bereko beste teknikari bat
Idazkaria:	Zuzenbidean lizentziaduna, Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrari atxikia / Udak Aholkularitza Juridikoko Zuzenbidean lizentziaduna den beste pertsona bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da prozedura bideratzeko organoa, eta ofizioz eginen ditu ebazpen-proposamena emateko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezko jotzen dituen jarduketak oro.

Baldin eta instrukzio-organoak edo, hala badagokio, deialdia kudeatzen duen unitateak baloratzen badute aurkeztutako eskabideren batek hobeto erantzun diezaikeela Udalaren beste dirulaguntza-deialdi baten xede edo helburuei, eta deialdi horretara aurkezteko epea oraindik amaitu gabe badago, entitate eskatzaileari eta dagokion Alorrari jakinaraziko die, entitateak hala eskatuz gero, eskabidea dagokion deialdira helarazi ahal izateko.

Balorazio-batzordeak beharrezko azalpen eta argibide guztiak eskatzen ahalko ditu nahitaezko txostena egin eta baloratzeko.

Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorreko zinegotzi ordezkariari dagokio dirulaguntzak emateko ebazpena.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 17.4 artikuluekin bat, ebatzi eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izanen da.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsiz gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsizat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ezbairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz laguntzen ahalko dira:

A, B, C eta D Epigrafeetako proiektuetarako diruz lagundu daitezkeen gastuak:

1. Proiektuari zuzenean lotutako gastuak:

a) Jarduerari egozten ahal zaizkion giza-baliabideak. Jarduera gauzatzeari lotu dakizkiokeen langileei ordaintzeak eragindako gastuak estal ditzake dirulaguntzak, horren xede den proiektuan edo jardueran emandako denborari dagokion proportzioan. Aurrekontuan, ongi zehaztuta adierazi beharko dira arduraldia proiektuan eta egiteko lanak. Gastu horiek legearen arabera behar den moduan justifikatu beharko dira (nominak, zuzen egindako fakturak dagozkien atxikipenekin, etab.). Prestakuntza-jardueretan, proiektuan jasota egonen dira haietan emandako ordu-kopurua eta haien kostua, kontuan harturik laguntzak ez duela inoiz joko orduko 60 € baino gehiago.

b) Diruz lagundutako jardueren material suntsikorrek eta publizitateak eragindako gastuak: Publizitatetzat ulertzen da zehazki jarduera iragartzeko sortutako materialak eta edukiak: kartelak, irratiko iragarkiak, argitalpenak sare sozialetan, hedabideetan eta webguneetan.

c) Gastuak lokalen (jarduera egoitza kanpo eginez gero) eta ekipamenduen alokairuan (teknikoak, soinua, etab.), jarduera garatzeko.



d) Beste gastu batzuk (jarduerari egotzi ahal zaizkion giza baliabideen joan-etorriak, dietak, ostatu-gastuak, eta abar), gehienez ere 500 euro jarduera bakoitzeko. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, 0,32 euro ordainduko da kilometro bakoitzeko.

e) Diruz lagundutako jarduerak egin bitartean mendekotasuna duten pertsonak artatzeak eragindako gastuak (haurtzaindegiak, ludotekak), gehienez ere 500 euro jarduera bakoitzeko.

f) Behar ekonomiko bereziak dituzten pertsonak jarduerara bertaratzearen ondoriozko gastuak (joan-etorriak).

g) Boluntarioen erantzukizun zibileko aseguru eta istripu-aseguru: deialdi honek diruz lagundutako jarduerak zer-nolako arriskuak sortu eta horiek estaliko dituen erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzeak eragindako gastua izaten ahalko da dirulaguntzaren xedea, bai eta boluntarioendako istripu-aseguru kontratatzeak eragindakoa ere. Elkarrekin bere jarduera guztiak estaltzen dituen aseguru bat kontratatzen badu, diruz laguntzeko aurkeztu duen programari dagokion alde proportzionala egotziko dio.

h) Aplikazio teknologikoak garatzea edo aurkeztutako proiektuak zati proportzionalan laguntzen dituen webgunearen mantentze-lanak egitea. Webguneak mantentzeko lanen gastuei dagokienez, diruz lagunduko da bakarrik laguntzen duten jarduerarekin zuzenean lotutako gastuaren zatia.

VIII. eranskinak jakitera ematen du zenbat jo dezakeen gehienez onartutako aurrekontuak.

2. Funtzionamendu- eta administrazio-gastuak, halakotzat ulertuta jarduera egiteko beharrezkoak diren gastu orokorrak, hala nola lokalaren alokairua, argia, ura, telefonoa eta administrazio-kudeaketa. Gastu horiek kalkulatu dira VIII. eranskinean ezarritakoarekin bat, eta ezin izanen dute defizit onetsiaren % 15 gaititu.

Funtzionamendu-gastuak bakarrik egozten ahalko dira egoitza Iruñean dutenen kasuan.

E epigrafeko proiektuetarako diruz lagundu daitezkeen gastuak, proiektuari zuzenean lotuak. Honako gastu hauek:

A) Jarduerari egozten ahal zaizkion giza baliabideak, VIII. eranskinarekin bat (prestakuntza-ekintzaren tarifikak eta aurrekontua).

a.1) Prestakuntza-ekintzen prestatzaile eta irakasleenak: 60 euro prestakuntza-orduko

a.2) Koordinazio-gastuak: Nahiz eta beharrezkoa ez izan 40 ordutik beherako prestakuntza-saioetan edo 4 prestatzaile baino gehiago ez dituztenetan, honako hau izanen da kontzeptu honen kontura diruz lagundu daitezkeen gastu-kalkulua:

a.2.1) 40 ordutik beherako prestakuntza-saioen kasuan. Ezarritako guztizko orduen % 40 joko dira koordinazio-ordutzat, eta koordinazio-ordu horietako bakoitzak 15 euroko balioa izanen du. Koordinazio-gastuak= prestakuntza-orduen guztizko kopuruaren % 40 * 15 euro orduko.

a.2.2) 40 ordu eta 60 ordu bitarteko prestakuntza-saioen kasuan. Guztira ezarritako orduen % 40 joko dira koordinazio-ordutzat. Ordu-kopuru horri prestakuntza-orduen kopurua gehituko zaio. Hala koordinazio-ordu bakoitzak nola prestakuntza-ordu bakoitzak 15 euroko balioa izanen dute. Koordinazio-gastuak= (prestakuntza-orduen guztizko kopuruaren % 40 + prestakuntza-orduen kopurua) * 15 euro orduko.

B) Diruz lagundutako jardueren material suntsikorrek eta publizitateak eragindako gastuak.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

c) Beste gastu batzuk, prestatzaileei soilik dagozkienak (jarduerari egozten ahal zaizkion giza baliabideen joan-etorriak, dietak, eta ostatu-gastuak), VIII. eranskinean ezarritakoarekin bat. Kategoria honetako gastuak 500 euro jotzen ahalko du, gehienez ere, prestakuntza-jarduera bakoitzeko.

d) Diruz lagundutako jarduerak egin bitartean mendekotasuna duten pertsonak artatzeak eragindako gastuak (haurtzaindegiak, ludotekak), gehienez ere 500 euro jarduera bakoitzeko.

Diruz lagundu daitezkeen gastuetan, eskuratze-kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa, M apartatuan eta deialdi honen VIII. eranskinean ezarritakoarekin bat.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) apartatuaren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒BAI ☐EZ

Dirulaguntzei buruzko Ordenantzan ezarritakoez gain (29.7), honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xede izanen:

a) Iruñeko Udala edo Nafarroako Gobernua zuzenean edo kontratuen bidez eskaintzen ari diren jarduerak.

b) Elkartearen langile-gastuak, jarduerak egiteko behar den denboratik haratagokoak (funtzionamendu-gastu gisa ezarritakoa izan ezik), hala nola dietak eta kilometraje-ordaina.

c) Entitatearen barne-funtzionamenduko jarduerak –herritarrei irekita ez daudenek– eragindako gastuak: entitatearen batzarrak, bilerak edo topaketak, barne-prestakuntzako jarduerak, barne-komunikazio eta -informaziorako bideak, etab.

d) Jardueretara joan edo horietan parte hartu duten pertsonendako lunchek, bazkari-afariek, ospakizunek, jatetxeetan eta antzekoetan egindako ospakizunek, eta abarrek eragindako gastuak, salbu eta VIII. eranskinean zehaztutakoa. Salbuespen dira, halaber, Olentzeroren eta Errege Magoen kabalkadan banatutako gozokiak, gaztainak edo litxarrerriak.

e) Ez dira diruz lagunduko egun bat baino gehiago irauten duten bidaiak.

f) Jardueretara bertaraten diren edo horietan parte hartzen duten pertsonendako ekarpenak, diruz zein gauzazkoak. Berariaz baztertzen dira opariei, diru-hobariei, sariei, zozketei, bazkari-afariei edo jenero-opariei lotutako gastuak. Sari, dohaintza edo beste zeinahi motatako laguntza ekonomikoak ere (bekak eta abar) ez dira diruz lagunduko.

g) Material inbentariagarria erosteak, lokalen garbiketak eta/edo mantentzeak, altzariak erosteak edo lokalak egokitzeak eragindako gastuak. Inbertsioak: aretoaren balioa handitzen duten ekipo finkoak eta egiturazkoak erostea (berokuntza, aire girotua, klimatizazioa, elektrizitatea, etab.); altzariak zein bulegoko ekipamendua, informatikoa nahiz digitala, erostea; aretoak egokitzeko eta mantentzeko gastuak, besteak beste garbiketa-, margotze- eta konponketa-lanak eragindakoak, eta jantziei, musika instrumentuei eta besteri dagozkienak.

h) Auzo-elkarteek, kultur koordinakundeek eta jai-batzordeek auzoetako festak antolatzeak aurkeztutako proiektuen kasuan, ez dira diruz lagunduko aipatutako entitate horiek auzoko festak martxan jartzeko Kultura eta Berdintasuneko Alorrarekin sinatutako hitzarmenak estaltzen dituen horiek.

i) Aldizkariak, egutegiak, agendak, argitalpenak... editatu eta/edo inprimatzeko gastuak. Auzoetako jai-programak salbuetsita daude.

j) Filmak, film laburrak, diskoak eta/edo dokumentalak egin eta ekoizteak eragindako gastuak

k) Kirol lehiaketak antolatzeak eragindako gastuak: ekipazioak, arropa, baloiak, etab.

l) Iruñeko Udalaren logotiporik ez duten edo Udalak finantzatu dituela adierazten ez duen diruz



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

lagundutako jardueraren material, kartel eta publizitate oro, dirulaguntza ematen denetik aurrera.

m) 16 urtetik beherakoei zuzendutako jarduerak. Horren salbuespen izanzen dira A epigrafeari lotutako jarduerak, haien izaera dela-eta (Olentzero, Erregeak...), eta herritar guztiei irekita egoteagatik helduak zein adingabeak hartzen ahal dituzten unean uneko jarduera horiek

n) Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzaren 29.7 artikuluan baztertutakoak.

2. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea: 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra.

M. AZPIKONTRATAZIOA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoak: Ehunekoak: % 50.

Azpi kontratatutako pertsonak edo entitateak onuradunari lotuta daudenean, aipatu kontratazioa merkatuko baldintza normalen pean egin beharko da, eta organo emailearen alde aurreko baimena eskuratu beharko du, Dirulaguntzei buruzko Ordenantzaren 30.7b. artikuluan zehaztutakoarekin bat.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoak:

Dirulaguntzak eskatu eta onartutako aurrekontuaren ehuneko bat estaliko du, eta ezin izanen du gainditu, inolaz ere, proiektuaren kostu osoaren % 75. Entitateak kostuaren % 25 ordaindu beharko du gutxienez, dela funts propioen bidez dela beste dirulaguntza batzuen bidez.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Deialditik kanpo geldituko dira Iruñeko Udalaren finantzazioa duten proiektuak edo jarduerak, kontratu zein hitzarmenen bidez, edo haien izaera edo edukia dela-eta, Udalaren dirulaguntzetarako deialdi berariazkoagoen xede izan daitezkeenak, L.h) apartatuan jasotako salbuespena salbu.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xede den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarrerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☐ Ordainketa aurreratua:

☒ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta alde aurrekoaren artekoa:

Entitate eskatzaile bakoitzaren guztizko dirulaguntza onesten duen ebazpenean, emandako dirulaguntzaren % 75 ordaintzeko aginduko da. Kopuru hori bi hilabeteren buruan ordainduko da gehienez ere, behin organo eskudunak ebazpena jakinarazi eta hortik aitzina.

Ordaintzeko geratzen den % 25a, onuradunek deialdi honetako P apartatuan galdatutako egiaztagiria aurkeztean aginduko da, ebazpen bidez, unitate kudeatzaileak adostasun-txostena eman ondoren, eta dirulaguntzaren zebatekoa aldatzen ahalko da, baita gutxiago ordaindu ere. Bigarren ordainketa hori xedatzen duen ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie.

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, Udalak ofizioz kitatzen ahalko ditu, alde aurretik, dirulaguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza horiek, osorik edo parte batean, zor dituzten zenbatekoekin konpentsatuta.

2. Bermeen eraketa:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa



P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

☐ Justifikazio-kontua:

☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

☐ Kontu-ikuskaritzako txostena dakarren justifikazio-kontua

Eduki gehigarria: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu sinplifikatua.

☐ Gastua moduluka egiaztatzea (Gizarte Segurantzaren Legearen 37. artikuluan ezarritako aginduei jarraiki Ordenantza). Honako hauek zehaztea:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitateko kostua:

Gainerako alderdi egokiak:

☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (38. Artikuluan ezarritako aginduak betez, Ordenantza).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☒ Beste sistema bat: Dirulaguntza jasotzen duten entitate guztiek, telematikoki eta artxibo batean aurkeztu beharko dituzte diruz lagundutako jardueraren ondorioz hartzekodunei egindako ordainketen frogagiriak, gastuen frogagiriak, lortutako diru-sarreraren zerrenda eta egiaztagiria. Formatu elektronikokoak zein formatu fisikokoak kopia eskaneatuak sartuko dira. Diruz lagundutako jardueraren % 100 justifikatu beharko da, eta ez dirulaguntzaren zenbatekora iritsi artekoa soilik. Honako hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskabidea. Automatikoki sortuko da izapide telematikoa egitearekin batera.

b) Memoria-txostena, diruz lagundutako eta egindako jardueraren ebaluazioari buruz, horretarako diseinatutako ereduarekin bat: "Memoria-txostena, proiektuaren garapenari buruz". Eredua deialdiari atxikitako VII.1 eranskinean jaso da.

c) Udalaren dirulaguntzaz baliatuta egin diren material iraunkor guztien kopia (argitalpenak, ikus-entzunezkoak, etab.).

d) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda (VII.2. eranskina).

Aurreko zerrenda hori egiaztatzeko, dagozkion ziurtagiriak, diruz lagundutako gastu guztien kopia kautoak eta horiek ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu behar dira: fakturak, ordainagiriak, are nominak ere, tributuak nahiz Gizarte Segurantzako kuotak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentuak, betiere merkataritzako trafiko juridikoan baliozkotasuna edo administrazio-eraginkortasuna baldin badute eta horien zenbatekoa emandako dirulaguntzaren kargura ordaindu bada, modu korrelatiboan ordenaturik aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera.

Egindako gastuak osagai guztiak jasotzen dituzten fakturen bitartez egiaztatuko dira, eta inongo kasutan ez dira onartuko ordainagiri hutsak eta/edo kutxako tiketak. Edonola ere, ez da ordaindu izanaren egiaztagiririk



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

aurkeztu beharko gastuaren egiaztagiriko zenbatekoa 100 eurotik beherakoa denean, betiere horien zenbatekoak ez badu diruz lagundutako gastuen % 15 baino gehiago jotzen. Ez da 100 €-tik gorako ordainketarik onartuko eskudirutan.

Fakturak indarra duten legeen arabera jaulkiko dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFZ, fakturaren jaulkitze-data, kontzeptua, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehakapena, aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta jaulkitzen duenaren sinadura. Horiez gain, PFEZ atxikipena eta ordainketa zehaztuko dira. Monitoreei eta bestelako zerbitzuei lotutako gastuak faktura behar bezala beterik aurkeztuta egiaztatuko dira, betiere zehaztuta ordubeteko prezioa eta zerbitzuan emandako orduen kopurua. Zerbitzu-emailaren eta hori kontratatzen duen entitatearen ardura izanen da Iruñeko Udalaren Jarduera Ekonomikoen Gaineko zergan alta emana izatea, bai eta PFEZaren atxikipena Foru Ogasunari ordaintzea ere.

- e) Zeharkako gastuak justifikatzeko, gastu bakoitzaren izaerari dagozkion ziurtagiriak aurkeztuko dira, ezarritako mugekin bat.
- f) Administrazio- eta kudeaketa-gastuak entitatearen Iruñeko egoitzari dagozkionak izanen dira, diruz lagundutako jarduera egiten den aldikoak izanen dira eta harekin bat etorriko dira.
- g) Hartzekodunei ordaindu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak. Ordaindu izana dagokion banku-agiri bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla egiaztatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.
- h) Borondatez aurkez daitekeen beste edozein agiri –idatzizkoa zein grafikoa–, finantzatutako proiektuaren funtzionamendu edo gauzatze egokia egiaztatze aldera.
- i) Halakorik behar balitz, ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzultzekoa.

Hala VII. eranskina nola gainerako justifikazio-agiriak (fakturak, ordainagiriak, etab.) Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoa aurkeztuko dira.

Partaidetzako unitate teknikoak, laginketa-tekniken bidez, telematikoki aurkeztutako frogagirien % 80 egiaztatuko du gutxienez, betiere horien guztizko zenbatekoa diruz lagundutako gastuaren % 70ra iristen bada.

Partaidetzako unitate teknikoak, entitate onuradunak gastuen justifikazioan agertu dituen gastuak aztertu ondoren, justifikazioa onartzeko beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak aurrez aurreko tramitearen bidez aurkezteko eskatzen ahalko du.

Behin gauzatutako jarduerari dagokien justifikazioa aztertu eta gero, unitate tekniko kudeatzaileak balorazio-txosten bat egingen du. Bertan espresuki adierazita geldituko da guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Behin betiko memoria eta justifikazio-agiriak aurkezteko epea 2023ko azaroaren 10ean amaituko da (egun hori barne).

Salbuespenez, data horretan diruz lagundutako jarduera guztiak amaitu ez badira eta justifikazioa ezin bada data horretan osorik aurkeztu, elkarteek behin-behineko memoria eta ordura arte, hau da, 2023ko azaroaren 10era arte egindako jardueren justifikazioak aurkeztu beharko dituzte. Behin betiko memoria eta azaro-abenduan egindako jardueren justifikazioa 2024ko urtarrilaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dira

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak batek ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

- Esku-hartzearen esparruan zer emaitza eta jarduera egiteko konpromisoa hartu eta horiek osoki edo parte batez betetzen ez badira.
- Edozein zio dela medio gastuak egiten ez badira, edo horietan funtsezko aldaketak egiten badira, Iruñeko Udalak organo kudeatzailearen bidez horretarako berariazko baimenik eman gabe.
- Dirulaguntza justifikatzeko betebeharra ez betetzeak edo behar bezala ez justifikatzeak, ez-betetze maila eta gainerako inguruabarrak kontuan hartuta, dirulaguntza osorik edo zati batean itzuli beharra ekarriko du, eta, hala badagokio, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea, justifikazioak adierazitako epeetan ez aurkezteagatik.

Onuradunek lortutako betetze-maila nahiko hurbil badago erabateko betetze-mailatik, eta haiek ezbairik gabe erakusten badute beren konpromisoak betetzen ahalegindu direla, itzuli beharreko kopurua heinekotasun-printzipioa aplikatuta xedatuko da, halako moduz non jarduera zein heinetan ez den bete eta hainbesteko portzentajeaz itzuliko baitu onuradunak dirulaguntza.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

1. Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, deialdi honetan baimendutako kasuetatik at beste diru-iturri batzuk eskuratzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzen ahalko da.
2. Udalaren eta dirulaguntza jasotzen duten entitateen arteko harremanetan sakontzeko, Udaleko teknikariek eginen den jardueraren bat bisitatzen ahalko dute, horrela Iruñeko elkarteek egiten duten lana sakonago ezagutzeko
3. Datu pertsonalen babesa: Iruñeko Udala da arduradun Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrek emandako dirulaguntzaren kudeaketa egiteko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Datuak, legeek aginduta, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari jakinaraziko zaizkio , eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legearekin bat argitaratuko dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Pribatutasun-politikan (www.pamplona.es) kontsultatu ditzakezu tratamendu-zerrenda eta informazio gehigarria.

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☐
☐
☐
☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.
IV. eranskina. Erantzukizunpeko adierazpena, galdatutako agirien gainean
V. eranskina. Proiektu edo jardueraren aurkezpena
- V.1. eranskina. Entitatearen identifikazio-fitxa
- V.2. eranskina. Proiektu-proposamenaren formularioa
- V.3. eranskina. Jarduera bakoitzeko bete beharreko orria
- V.4. eranskina. Zeharkako gastuak.
VI. eranskina Gardentasuna
VII. Eranskina Proiektuaren / jardueraren justifikazioa
- VII.1. eranskina. Memoria-txostena, proiektuaren garapenari buruz.
- VII.2. eranskina. Egindako jarduera bakoitzaren fakturen eta diru-sarreraren fitxa
- VII.3. eranskina. Proiektuari egotzitako zeharkako gastuetarako fakturen fitxa
- VII.4. eranskina. Kilometro-gastuen adierazpena
VIII. eranskina. Deialdi honen bidez diruz laguntzen ahal den aurrekontuaren gehieneko zenbatekoa

OHAR GARRANTZITSUA: Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.



IV. ERANSKINA

-ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GALDATUTAKO AGIRIEN GAINEAN-

Izen-abizenak: Jakinarazpenetarako
helbidea: NAN:
Telefonoa: Faxe: E-maila: Nire kabuz edo beste
honen izenean (dagokionaren arabera): Helbidea:
.....IFZ..... Telefonoa:.....Faxe:
Jakinaren gainean nago dirulaguntza-deialdia egin dela, norgehiagokako araubidean, xede honetarako:
.....

ADIERAZPENA

- Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten honako agiri hauek, eta halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoen eskuetan daude:
 - Elkarre edo irabazi-asmorik gabeko entitatearen estatutuak.
 - Entitate eskatzailearen ordezkariaren NANA, pasaporte edo antzeko agiria.
 - Indarrean den egiaztagiria, entitatearen Zuzendaritza Batzordea osatzen duten kideak ziurtatzeko, bertan zehazturik zenbat gizon eta zenbat emakume osatzen duten.
 - Egiaztagiria, izaera juridikoa dela-eta dagokien Erregistroan izena emana dutela ziurtatzeko, betiere hori eska badaiteke indarra duten arauekin bat.
 - Identifikazio Fiskaleko Txartela.
- Eskatutako agiri horiek(e)koaren (e)(a)n aurkeztu ziren Iruñeko Udalaren deialdirako, eta Udalaren eskuetan daude, ez dira bost urte igaro zein prozesutarako aurkeztu eta hura amaitu zenetik, eta epe horretan ez da aldaketarik izan agirietan.

Eta hala jasota gera dadin eta behar diren ondorioetarako,



V. ERANSKINA

Proiektu edo jardueraren aurkezpena

(Deialdi honen G.4 apartatuan jasotako agirien aurkezpena). Honako informazio hau

jasotzen duen txostena (erantsitako eredua):

1. Entitatearen identifikazio-fitxa. (V.1 ERANSKINA)
2. Proiektu-proposamenaren formularioa. (V.2 ERANSKINA)
3. Jarduera bakoitzeko bete beharreko orria. (V.3 ERANSKINA)



V.1 ERANSKINA.
ENTITATEAREN IDENTIFIKAZIO-FITXA

1.1. Entitatearen datuak:

Entitatearen izen osoa:Siglak:.....

IFZ:..... Egoitza soziala:..... PK:.....

Telefonoa:Faxa:..... Helbide elektronikoa:

Elkartearen antzintasuna (hasiera-data):Bazkide kopurua:

Zuzendaritza Batzordeko kide kopurua: ____ Gizonak: Emakumeak: ____

Entitatearen giza baliabideak:

	Emakumeak	Gizonak
Elkartekideen kopurua		
Boluntarioen kopurua		
Kontratatuen kopurua		

Udal-erregistroan duen zk.:..... Nafarroako Gobernuaren erregistroan duen zk.:
.....

1.2. Proiektua zein epigrafetan aurkeztu (dagokiona seinalatu)

☐ A epigrafea ☐ B epigrafea ☐ C epigrafea ☐ D epigrafea ☐ E epigrafea

1.3. Beste administrazioetatik, entitate publikoetatik zein pribatuetatik jasotako dirulaguntzak edo bestelako diru-sarrerak:

Erakundea	Kontzeptua	Zenbatekoa	Egoera (eskatua, emana...)
		Guztira:	

1.4. Elkarte Herritarren Partaidetzako dirulaguntzen onuradun izan da aurreko urteetan? Hala bada, zer urtetan?

--



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

ÁREA DE EDUCACIÓN,
PARTICIPACIÓN
CIUDADANA Y JUVENTUD

HEZKUNTZA, HERRITARREN
PARTAIDETZA ETA GAZTERIAKO
ALORRA

T. 948 420 100 /
010

1.4. Entitatearen arduraduna:

Izen-abizenak:

NAN:Tel.:Harremanetarako ordutegia:.....

Helbide elektronikoa:



V.2. PROIEKTUAREN PROPOSAMENA EGITEKO FORMULARIOA

PROIEKTUAREN DESKTRIBAPENA

- 1. Proiektuaren deskribapen laburra eta orokorra (oinarria, proiektua justifikatzeko egindako errealitate-azterketa, analisia, estatistikak eta proiektuaren premia eta onurak erakusten dituzten beste datu batzuk).**

- 2. Elkartearen helburuak, proiektuarekin duen lotura eta garatuko diren jarduketak.**



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 /
010

ÁREA DE EDUCACIÓN,
PARTICIPACIÓN
CIUDADANA Y JUVENTUD

HEZKUNTZA, HERRITARREN
PARTAIDETZA ETA GAZTERIAKO
ALORRA

3. Proiektuaren helburuak, edukiak eta kronograma-proposamena.



4. Garatu beharreko jarduerak.

4.1. EGIN BEHARREKO JARDUEREN ZERRENDA ETA OSOKO AURREKONTUA

Zk.	Aurkeztutako proiektuaren barruan egitekoa den jardueraren izena	Jardueraren epigrafe a	Jarduer a egiteko aurreik usitako data (1)	Onuradunen kopurua (gutxi gorabehera)	Monitore boluntarioe n kopurua (2)	Kontratatu ko monitoreen kopurua (3)	Jardueraren aurrekontua (4)	Deialdi honetara aurkeztut ako defizita (5)
1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								
10								
11								
12								
13								
14								
15								
GUZTIRA								

2023ko laburpena

Aurreikusitako jardueren kopurua: Parte-hartzaileen kopuru osoa, gutxi gorabehera:
.....

(zehaztu gizon eta emakumeen kopurua) Gizonak: _____ Emakumeak: _____



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

ÁREA DE EDUCACIÓN,
PARTICIPACIÓN
CIUDADANA Y JUVENTUD

HEZKUNTZA, HERRITARREN
PARTAIDETZA ETA GAZTERIAKO
ALORRA

T. 948 420 100 /

010

Jarduerak egiteko boluntarioen kopurua:

Kontrataturako pertsonen kopurua:

- (1) 2023ko lehen sei hilekorako edo bigarrenerako programatu den azaldu, besterik ez.
- (2) Zehaztu programaturako jardueran BOLUNTARIO gisa aritzen diren pertsonen kopurua.
- (3) Zehaztu programaturako jardueran KONTRATATU gisa aritzen diren pertsonen kopurua.
- (4) Jardueraren kostua, guztira
- (5) Deialdi honi jarduera gauzatzeko eskaturako behin betiko kopurua, lortutako beste diru-sarrerak kontatu gabe.



5. Ebaluazio-sistema. Aurreikusitako ebaluazioa prozesu osoan zehar.

6. Aurkeztutako proiektua nori zuzenduta dagoen: adina, profila, sexua*, etab.

* Datuak sexuaren arabera bereiztea sexu- eta genero-aniztasunaren errealitatearekin bat ez datorrela onartu arren, datu hori eskatu egiten da datu estatistikoak eskuratze aldera, hartara datu horiek sailkatu eta diruz lagundutako jardueren eraginaren berri izateko.



V.3. ERANSKINA. JARDUERA BAKOITZEKO BETE BEHARREKO ORRIA

Jardueraren zk. _____ Epigrafea: _____

ENTITATE ANTOLATZAILEA:

Entitatearen izena:	Tel.:
---------------------	-------

JARDUERAREN ARDURADUNA(K):

Izen-abizenak	Entitatearekiko lotura (boluntarioa, profesional kontratatua...)

JARDUERA:

Jardueraren izena	
Jarduera egiteko data	
Tokia	
Lortu beharreko helburuak	
Jarduera nori zuzentzen zaion	
Aurreikusitako parte-hartzaileen kopurua	
JARDUERAREN LABURPENA Programa, edukia, egutegia, langileak, baliabide materialak...	
Ebaluazio-adierazleak.	
BESTE ARGIBIDE BATZUK	



JARDUERA BAKOITZAREN AURREKONTU BANAKATUA
JARDUERA ZK.: _____

GASTUAK

KONTZEPTUA

ZENBATEKOA

DIRU-SARRERAK

KONTZEPTUA

ZENBATEKOA

DEFIZITA *

Iruñean,(e)koaren.....(e)(a)n.

** Deialdi honi eskatutako azken zenbatekoa jarduera gauzatzeko, lortutako beste diru-sarrera batzuk kontuan hartu gabe.*



V.4 ERANSKINA. ZEHARKAKO GASTUAK (Bete bakarrik zeharkako gastuak eskatu nahi badira)

Zeharkako gastuak	Zenbatekoa
Administrazio-kudeaketa (langileria).	
Lokalaren alokairua	
Argia	
Gasa	
Telefonia	
Ura	
Guztira*	

** VIII. eranskinean zehazten da zeharkako gastuak nola kalkulatu
Zeharkako gastuak kenduta onartutako aurrekontua + onartutako aurrekontuaren % 15.*



VI. ERANSKINA. -ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GARDENTASUN-BETEBEHARRARI BURUZ-

Izen-abizenak:

NAN:..... Nire kabuz edo honako hau ordezkatzuz (dagokionaren arabera):..... IFZ:..... Jakinaren gainean nago dirulaguntzetarako deialdi hau egin dela, norgehiagokako araubidean, xede honetarako:

Honako hau adierazten dut gardentasun-betebeharrez den bezainbatean:

- ☐ Gardentasun-betebeharra bete behar ez duen pertsona edo entitatea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.
- ☐ Gardentasun-betebeharra bete behar duen entitatea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 12.4. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta hortaz, aipatu 12.4. artikuluan aurreikusitako informazioa jakinarazten dut ondoko koadroan eta entitatearen urteko azken kontuen kopia bat txertatzen dut.

OHAR GARRANTZITSUA: aipatutako Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legearen 3.c eta 12. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, gardentasun-betebeharrak bete behar dituzte urtebetez 20.000 euro baino gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten entitate pribatuak, edo jasotako laguntzek edo dirulaguntzek entitate horien urteko diru- sarrera guztien % 20 egiten badute gutxienez, baldin eta gutxienez ere 5.000 euroko kopurura iristen badira.

ADIERAZPENA, GARDENTASUN-BETEBEHARRARI BURUZ				
ENTITEA		IFK		
ORGANOA	KARGUA	ORDAINSARIAREN ZENBATEKOA	KONTZEPTUA	ZERTARAKO

Iruñean, (e)ko aren (e)(a)n
(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun botere publikoek baliatuz dirulaguntza kudeatzeko xedez erabilliko diren datu pertsonalez. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrean (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es webguneko Pribatutasun-politikan kontsulta ditzakezu.



VII. ERANSKINA. PROIEKTUAREN / JARDUERAREN JUSTIFIKAZIOA

Justifikazio-agiriak aurkezteko epea 2023ko azaroaren 10ean amaituko da.

Salbuespenez, data horretan diruz lagundutako jarduera amaitu ez bada eta egindako gastu guztiak ezin badira justifikatu, elkarteek ordura artekoen behin-behineko memoria eta justifikazioak aurkeztu beharko dituzte aipatu data, 2023ko azaroaren 10a, baino lehen. Hori egin ezean, ez da dirulaguntzaren gainerako % 25a ordainduko. Behin betiko memoria eta 2023ko abenduan egindako jardueren justifikazioa 2024ko urtarrilaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dira.

EREDU OFIZIALAREN ARABERAKO ESKABIDEarekin batera agiri hauek aurkeztu:

- 1. Memoria-txostena, proiektuaren garapenari buruz. (VII.1 ERANSKINA)**
- 2. Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda. (VII.2 ERANSKINA)**



VII.1 ERANSKINA.

MEMORIA-TXOSTENA, PROIEKTUAREN GARAPENARI BURUZ

1. Memoria-txostena, 2023ko proiektuaren garapenari buruz.

Memoria honetan honako datu hauek erantsiko dira, labur:

- **Proiektuaren izena.**
- **Dirulaguntzaren xedea, aurkeztutako aurrekontu eta proiektuarekin bat.**
- **Egindako jarduerak eta erdietsi nahi ziren helburuen zein lortutako emaitzen deskribapena.**
- **Proiektua garatzean egindako aldaketak, halakorik balitz.**
- **Finantzabideen zerrenda: dirulaguntzarekin finantzatu diren jardueren deskribapena, haien kostua adierazita, bai eta norbere funtsekin edo beste dirulaguntzekin finantzatu diren jarduerak ere aipatuta.**
- **Beste datu batzuk: parte-hartzaileen kopurua eta haien ezaugarriak.**
- **Proiektuaren ebaluazioa.**
- **Ondorioak.**



VII.2. ERANSKINA. EGINDAKO JARDUERA BAKOITZAREN FAKTUREN ETA DIRU-SARREREN FITXA

Zk. IZENA.....

Faktura-zk.	Fakturaren data	Gastu-kontzeptua	Zenbatekoa

Gastuak guztira:

JARDUERARAKO LORTUTAKO DIRU-SARRERAK

Kontzeptua	Jatorria	Zenbatekoa

Diru-sarrerak guztira:

Iruñean, 2023koaren....(e)(a)n

OHARRA: Formatu honetan aurkeztutako fakturak baino ez dira onartuko, hau da, dagozkien jarduerari behar bezala egotziak, eta zerrenda honi grapaz josiak.



VII.3. ERANSKINA. PROIEKTUARI EGOTZITAKO ZEHARKAKO GASTUETARAKO FAKTUREN FITXA

Faktura-zk.	Fakturaren data	Gastu-kontzeptua	Zenbatekoa

Gastuak guztira:

JARDUERARAKO LORTUTAKO DIRU-SARRERAK

Kontzeptua	Jatorria	Zenbatekoa

Diru-sarrerak guztira:

Iruñean, 2023koaren....(e)(a)n

OHARRA: Formatu honetan aurkeztutako fakturak baino ez dira onartuko, hau da, dagozkien jarduerari behar bezala egotziak, eta zerrenda honi grapaz josiak.



VII.4. ERANSKINA. KILOMETRO-GASTUEN ADIERAZPENA (DEIALDI HONEK DIRUZ LAGUNTZEN DITUEN ELKARTEAREN UNEAN UNEKO JARDUERAK EGITEKO ERABILITAKO IBILGAILU PRIBATUENDAKO BAKARRIK)

Elkartea: _____ IFK: _____ Honako
kilometro-gastu hauek adierazten ditu:

Data	Arrazoia	Egindako kilometroak	Guztira (km kopurua x 0,32)

**VIII. ERANSKINA. DEIALDI HONEN BIDEZ DIRUZ LAGUNTZEN AHAL DIREN AURREKONTUAREN GEHIENEO ZENBATEKOAK.**

Epigrafe baten zenbatekoak beste batean aplikatzen ahalko dira. Kontuan hartu deialdian jaso (L apartatua) eta diruz lagundu ezin diren gastuak.

A epigrafea	
Honako hauek dira jarduera hauetan egin daitezkeen gehieneko gastuak:	
Inauteriak kalean*	2000
Olentzero, kabalkada, erregeak*	3000
Artisau-azokak, merkatuak, azoka txikiak*	1500
Kultur jarduerak, erraldoiak, herri-kirolak, kirolak, haurrendako jarduerak, etab., auzoetako festetan	2500 auzoko festa bakoitzeko
Puzgarriak	500
Kultur asteko kale-jarduerak*	2000
Antzerki-, dantza-, musika-ikuskizunak edo beste mota batekoak	1000 jarduera bakoitzeko
Jaialdia, herritarrei irekitako eguna*	2000
Agertokiaren alokairua	2000 jarduera bakoitzeko
Soinua eta/edo soinu-ekipoa, mugagailua...	1000 jarduera bakoitzeko
Komunak alokatzea	600 jarduera bakoitzeko
Karpak, aulkiak, mahaia alokatzea	2000 jarduera bakoitzeko
Festen programak (diseinua, inprimatzea...)	600 euro eskaera bakoitzeko
Piroteknia, zezensuzkoa, suziriak...	600 euro eskaera bakoitzeko
Auzoetako egunak, Haurren eguna, Emakumearen eguna, Halloween, Elkartearen eguna... Unean uneko eta egun bakarreko ekitaldi soziokulturalak herritarrei irekiak	2000
Erregeen edo Olentzeroren desfilerako gozokiak, gaztainak edo litxarrerriak.	300
Kilometro-gastuak	0,32 €/km
	Gehienez ere 150 euro eskaera bakoitzeko

*Ikur horrekin markatutako kontzeptuak modu bakar eta osoan aplikatuko dira, eta gastu guztiak kopuru horretan sartuko dira.

B epigrafea	
Honako hauek dira jarduera hauetan egin daitezkeen gehieneko gastuak:	
Elkartearen eguna, egoitzan*	1000
Elkartearen eguna kalean *	2000
Interes orokorreko erakusketa*	1000
Erakusketa egoitzan	250
Hitzaldiak, prestakuntzak- hizlariari ordaintzea	60 € orduko hizlari bakoitzeko
Hitzaldiak, biltzarrak edo jardunaldiak antolatzea*	4000 jarduera bakoitzeko
Herritarrei irekitako ikastaroak edo lantegiak*	500 euro ikastaro/lantegi bakoitzeko
Jarduera egoitza kanpo egiteko aretoa alokatzea	3000 jarduera bakoitzeko
Sentsibilizazio-kanpainak*	4000
Boluntariotzako ekintzek eta boluntario-lana sustatzeak eragindako boluntariotza-gastuak	800



(hitzaldiak, jardunaldiak, erakartze-kanpaina...)	
Luncheak eta ikasturte hasierak eta amaierak eragindako gastuak, gehienez ere 350 eskaera bakoitzeko	150 jarduera bakoitzeko 350 eskaera bakoitzeko
Lasterketa edo ibilaldi solidarioak, San Silvestre, krosak*	5000
Jaialdia, herritarrei irekitako eguna*	2000
Ostatu-gastuak, joan-etorriak, jarduerari egotzen ahal zaizkion baliabideen dietak (hizlariak, prestatzaileak...)	500 euro jarduera bakoitzeko, gehienez ere 2000 euro eskaera bakoitzeko
Diruz lagundutako jarduerak egin bitartean mendekotasuna duten pertsonak artatzeak eragindako gastuak (haurtzaindegiak, ludotekak)	500 euro jarduera bakoitzeko
Behar ekonomiko bereziak dituzten pertsonen jardueran parte hartzeak eragindako gastuak	300 € eskaera bakoitzeko
Zeinu-hizkuntzako interpretazioaren gastuak, streaminga	1000 euro jarduera bakoitzeko
Kilometro-gastuak	0,32 €/km Gehienez ere 150 euro eskaera bakoitzeko

*Ikur horrekin markatutako kontzeptuak modu bakar eta osoan aplikatuko dira, eta gastu guztiak kopuru horretan sartuko dira.

C epigrafea	
Honako hauek dira jarduera hauetan egin daitezkeen gehieneko gastuak:	
Elkartearen eguna, egoitzan*	1000
Herritarrei irekitako eguna*	2000
Hitzaldiak, prestakuntza-ikastaroak	60 € orduko hizlari bakoitzeko
Barneko kultur astea (elkartearen barruan)*	500
Kultur astea kale-jarduerekin*	2000
Luncheak eta ikasturte hasierak eta amaierak eragindako gastuak	150 jarduera bakoitzeko 350 € bitarte eskaera bakoitzeko
Behar ekonomiko bereziak dituzten pertsonen jardueran parte hartzeak eragindako gastuak	300 € eskaera bakoitzeko
Inauteriak, egoitzaren barruan	500
Antzerki- eta dantza-ikuskizunak	1000
Kilometro-gastuak	0,32 €/km Gehienez ere 150 euro eskaera bakoitzeko

*Ikur horrekin markatutako kontzeptuak modu bakar eta osoan aplikatuko dira, eta gastu guztiak kopuru horretan sartuko dira.

D epigrafea	
Honako hauek dira jarduera hauetan egin daitezkeen gehieneko gastuak:	
Elkartearen eguna, egoitzan*	1000
Jaialdia, herritarrei irekitako eguna*	2000
Hitzaldiak, prestakuntzak	60 € orduko hizlari bakoitzeko
Eguberrietako jarduerak (egoitza barruan)*	500



San Fermin / San Saturnino ospakizunak*	1000
Karta/bingo txapelketen gastuak	200
Egun bateko txangoak*	750
Barneko kultur astea (elkartearen barruan)*	500
Kultur astea kalean	2000
Lunchek eta ikasturte hasierak eta amaierak eragindako gastuak	150
Unean uneko ekitaldiak (Nagusien eguna, Emakumeen eguna, urrezko ezteiak...)*	400
Prestakuntza teknologia berrietan, urteko	800
Kilometro-gastuak	0,32 €/km
	Gehienez ere 150 euro eskaera bakoitzeko

*Ikur horrekin markatutako kontzeptuak modu bakar eta osoan aplikatuko dira, eta gastu guztiak kopuru horretan sartuko dira.

E epigrafea

Jarraian zehazten diren irizpideekin bat kalkulatu behar da prestakuntza-ekintzaren proiektuaren aurrekontua:

-A) Jarduerari egozten ahal zaizkion giza baliabideak:

a.1) Prestakuntza-ekintzen prestatzaile eta irakasleenak: 60 euro prestakuntza-orduko

a.2) Koordinazio-gastuak:

a.2.1) 40 orduetik beherako prestakuntza-saioen kasuan. Ezarritako guztizko orduen % 40 joko dira koordinazio-ordutzat, eta koordinazio-ordu horietako bakoitzak 15 euroko balioa izanen du.

Koordinazioa = guztizko prestakuntza-orduen % 40 * 15 euro

a.2.2) 40 ordu eta 60 ordu bitarteko prestakuntza-saioen kasuan. Guztira ezarritako orduen % 40 joko dira koordinazio-ordutzat. Ordu-kopuru horri prestakuntza-orduen kopurua gehituko zaio. Hala koordinazio-ordu bakoitzak nola prestakuntza-ordu bakoitzak 15 euroko balioa izanen dute.

Koordinazio-gastuak= (prestakuntza-orduen guztizko kopuruaren % 40 + prestakuntza-orduen kopurua) * 15 euro orduko.

- B) Diruz lagundutako jardueren material suntsikorrek eta publizitateak eragindako gastuak. Gehienez ere 500 € jarduera bakoitzeko

-C) Beste gastu batzuk, prestatzaileei soilik dagozkienak (jarduerari egozten ahal zaizkion giza baliabideen joan-etorriak, dietak, ostatu-gastuak, etab.).

Kategoria honetako gastuak 500 euro jotzen ahalko du gehienez ere.

- D) Diruz lagundutako jarduerak egin bitartean mendekotasuna duten pertsonak artatzeak eragindako gastuak (haurtzaindegiak, ludotekak). Kategoria honetako gastuak 500 euro jotzen ahalko du, gehienez ere.

FUNTZIONAMENDU-GASTUAK KALKULATZEA A, B, C, D eta E EPIGRAFEETARAKO

Zeharkako gastuak edo funtzionamendu-gastuak onetsitako aurrekontuaren arabera kalkulatu dira. Aurrekontu horrek zeharkako gasturik ez duten jarduera guztietan onetsitako gastua baino ez du barne hartuko. Kopuru horren gainean, % 15 kalkulatu da, eta hori batu egingen da, eta emaitza gisa zeharkako gastuekin



onetsitako aurrekontuaren guztizko zenbatekoa emanen da, gero justifikatu beharko dena. Beraz, honako formula honen bidez egingen da:

Onartutako aurrekontua + onartutako aurrekontuaren % 15.

Adibidez:

	Onetsitako aurrekontua
1. jarduera	3000
2. jarduera	2000
Guztira	5000

Adb.: $5000 \text{ onetsitako aurrekontua} + +750 (\% 15) = 5750 \text{ onetsitako aurrekontua}$, zeharkako gastuekin, eta ondoren, justifikatu beharko dena

*defizit onetsiak barne hartzen du jarduera guztien kostua, inolako zeharkako gasturik gabe. Dirulaguntzari egotzi nahi zaizkion zeharkako gastuak V.4. eranskinean jaso beharko dira.